

2020 / 2021 ikasturtea

LEUZEMIA MIELOIDE AKUTUA DUTEN HAURREN BIZI KALITATEA HOBETZEKO OSASUN-
HEZKUNTZA PROGRAMA.

Uxue Oliveira Gete

LABURPENA

Sarrera: Leuzemia Mieloide Akutua (LMA) haurren leuzemia kasuen bigarren ohikoena da. Progresio azkardun eta hezur muinean eragiten duen gaitza da, odol zelula normalen eraketa ekidinez. Tratamenduak kimioterapia intentsiboa eskatzen du, konplikazio arrisku asko dituen eta, ondorioz, umeen ospitalizazioa beharrezkoa da. Haurren eta haien inguruko bizi bizitzan haustura gertatzen delarik, garapen normala eragotziz eta sufrimendu fisiko eta emozionala ekarriz. Honek gerora, nahasmen psikologikoak garatzeko bulnerabilitatea areagotzen eta haurren bizi kalitatea murrizten du. Horregatik, haien gaixotasuna ulertzea, ospitaleko konforta areagotzea eta estres egoerei aurre egiten irakastea berebizikoa izango da.

Helburua: OSI Donostialdean LMaren ondorioz ingresatuak dauden 6-8 urte bitarteko haurren bizi kalitatea hobetzeko Osasun-Hezkuntza Programa bat diseinatzea.

Metodologia: Proiektu hau aurrera eramanez ahal izateko gaiaren inguruko bilaketa bibliografiko sistematizatu burutu da, metabilatzaile eta datu-base ezberdinetan. Honetaz gain, web-orri desberdinak, gidak eta zenbait liburu erabili dira.

Plangintza: Xede-taldeak beraien egoera eta jasango duten prozesuaren inguruko ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak bereganatu beharko ditu. Horretarako, metodologia eta teknika desberdinak erabiltzen dituzten 8 saioz eta 9 gaienez osaturiko unitate didaktikoa bat proposatuko da proiektuaren barnean. Osasun-agente desberdinek parte hartuko dute gaiak hobeki joratu ahal izateko. Gainera, programa bete eta helburuak lortu diren baloratzeko zenbait ebaluazio tresna sortu dira.

Ekarpen pertsonala: Egindako bilaketetan ez da arlo guztietan haurrarekin jarduten duen programarik ezta haurrak babestu eta haien garapena bermatzen duen politika zehatzik aurkitu, zerbitzu publikoek eskaini beharreko atal garrantzitsutzat hartzen dena. Bestalde, “minbiziari biziraun dion pertsona” izatearen motxilak daraman karga ulertu da.

Hitz gakoak: Leuzemia mieloide akutua, 6-8 urteko haurra, bizi kalitatea, garapena, inpaktu psikosoziala.

AURKIBIDEA

1	SARRERA	1
1.1	Leuzemia mieloide akutuaren definizioa	1
1.2	Leuzemia mieloide akutuaren inguruko osasun-hezkuntza proiektuaren justifikazioa	3
1.2.1	Leuzemia mieloide akutuaren intentsitatea	3
1.2.2	Leuzemia mieloide akutuaren garrantzia.....	4
1.2.3	Leuzemia mieloide akutuaren urrakortasuna	6
1.2.4	Leuzemia mieloide akutuaren arrisku-faktoreen analisia	7
1.3	Xede-taldearen aukeraketa eta justifikazioa	8
1.3.1	Xede-taldearen ezagutzen, jarrerren, gaitasunen eta itxaropenen identifikazioa.....	9
2	HELBURUAK	10
2.1	Helburu nagusia	10
2.2	Bigarren mailako helburuak	10
3	METODOLOGIA	10
4	PLANGINTZA	13
4.1	Xede-taldeak lortu behar dituen helburu pedagogikoak	13
4.1.1	Nagusia	13
4.1.2	Bigarren mailakoak	13
4.2	Jardueren programazioa	14
4.2.1	1. saioa	16
4.2.2	2. saioa	17
4.2.3	3. saioa	19
4.2.4	4. Saioa.....	21
4.2.5	5.Saioa.....	23
4.2.6	6. Saioa.....	26
4.2.7	7.Saioa.....	28
4.2.8	8. Saioa: Erronka burutzea.....	30
4.3	Ebaluazioaren plangintza	31
4.3.1	Proiektuaren emaitzen ebaluazioa.	31
4.3.2	Proiektuaren prozeduraren ebaluazioa	31
4.3.3	Proiektuaren egituraren eta baliabideen ebaluazioa	32
5	EKARPEN PERTSONALA	32
6	BIBLIOGRAFIA	35
	ERANSKINAK	39
1.	eranskina. FABren araberako LMAREN azpimoten klasifikazioa	39
2.	eranskina. OMEaren araberako LMAREN klasifikazioa	40
3.	eranskina. Gurasoei egin beharreko galdeketa erdi-egituratua	41

4. eranskina: LMA pairatzen duten hurrei egin beharreko galderak	43
5. eranskina. Bilaketa bibliografiko sistematizatuan erabilitako estrategia eta emaitzak ...	45
6. eranskina: Unitate didaktikoan landu nahi diren kompetentziak	47
7. Eranskina: Umearen egoeraren arabera saioen antolaketa.....	49
8. Eranskina: Xede-taldearen ebaluaketako check-lista.....	50
9. Eranskina: LMAREN inguruko posterra	55
10. eranskina: Gorputz atalak eta funtzionamendua	56
11. eranskina: Matematiketako erreleboen plantilla	57
12. eranskina: Psikomotrizitate saioa	58
13. eranskina: Erlaxazio ariketak	59
14. eranskina: Sentimenduen adierazpena	60
15. eranskina: Sentimenduen role-playing-a.....	61
16. eranskina: Fotopalabra	63
17. eranskina: Ospitaleak sortzen diguna.....	64
18. eranskina: Matematiketako txostena	65
19. eranskina: Puzzlea	66
20.eranskina: Komunikazioaren jolasa.....	67
21. eranskina: Saio bakoitzean eta atazan umea ebaluatzeko errubrika.....	68
22. eranskina: Osasun-agenteei OHeP-aren prozesua, egitura eta baliabideak ebaluatzeko galdetegia	70

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula: Leuzemien kategorien bereizketa	1
2. Taula: PIO egitura erabiliz hautatutako DeCS, MeSH eta hitz-gakoak	11
3. Taula: Lehen saioaren antolaketa	16
4. Taula: Bigarren saioan antolaketa.	18
5. Taula: Hirugarren saioaren antolaketa.	20
6. Taula: Laugarren saioaren antolaketa.	22
7. Taula: Bosgarren saioaren antolaketa.	24
8. Taula: Seigarren saioaren antolaketa.	27
9. Taula: Zazpigarren saioaren antolaketa	29
10. Taula: Zortzigarren saioaren antolaketa	30
11. Taula: LMAREN FAB klasifikazioa	39
12. Taula: OMEren arabeko LMAREN klasifikazioa	40
13. Taula: Bilaketa estrategia eta emaitzak	45
14. Taula: OHePan landu beharreko hezkuntzako kompetentziak	47

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia: LMAREN posterra.	55
----------------------------------	----

1 SARRERA

1.1 Leuzemia mieloide akutuaren definizioa

Jakin ba dakigunez, gorputza ehunka zelula desberdinez osaturik dago. Zelula hauek hazi, zatitu, bere funtzioa bete, zahartu eta hil egiten dira, beste batzuegatik ordeztuak direlarik. Minbizia gorputzeko zelulak kontrolik gabe hazten direnean sortzen den gaitza da, alterazioen ondorioz zelulak ez dira hiltzen eta gorputzak behar baino zelula gehiago ditu (1, 2).

Leuzemiaren kasuan, kontrolik gabeko hazkuntza edo transformazio gaiztoa **odol zelula heldugabeetan** ematen da. Hezur muinean zelulak garatu eta espezializatu egiten dira, odol zelula desberdinak sortuz. Akatsak azaltzean zatiketa zelularra ez da modu egokian ematen eta zelulak ez dira beren funtzioa egiteko gai (1-4).

Mota askotariko leuzemiak badaude ere, **lau kategoriatan** bereizten direla esan dezakegu: leuzemia mieloide akutua, leuzemia mieloide kronikoa, leuzemia linfoide akutua (LLA) eta leuzemia linfoide kronikoa.

1. Taula: Leuzemien kategorien bereizketa

LEUZEMIA KATEGORIAK SAILKATZEA			
Saillkapena	Motak	Haurretan zenbat eman?	Ezaugarriak
Bilakaeraren arabera	Kronikoa (Hazkuntza motela)	Ez dira oso ohikoak umeetan.	Sendatzen zailagoak dira
	Akutua (Hazkuntza azkarra)	Haurretan gehienetan ematen dena.	Berehalako tratamendua ezinbestekoa
zelula kalteturiko motaren arabera	Linfoidea	4 haur leuzemietatik 3k mota hau pairatzen dute	Gongoil linfatikoetan eragiten du, linfozito heldu edo oso gazte espezifiko batzuetan.
	Mieloidea	Gutxiago ematen da, adin tartearen arabera intzidentzia aldatzen doalarik	Hezur muina inbaditu eta gutxiegitasun medularra eragiten du, zelula mieloide heldugabeenei (blastoei) eraginez, eta odol zelula normalen eraketa ekidinez: globulu zuriak (linfoideak ez direnak), globulu gorriak eta plaketak.

Iturria: (1,3).

LMA, leuzemia mielozitiko akutua, leuzemia mielogeno akutua, leuzemia granulozitiko akutua

edo leuzemia ez linfositiko akutua bezala ere ezaguna da. Ez dira gaitz pediatriko honen jatorri espezifikoak ezagutzen baina, jakina da, portzentaje txiki batek (% 5 inguru) gaitz genetikoan datzan leuzemiarako predisposizioa aurkezten dutela, Dawen Sindromea (21. kromosomako trisomia) edo gutxiegitasun medular kongenitoen sindromeak adibidez (2,3,5).

Leuzemia mota honek **azpimota** asko ditu, gaur, bi sistema erabiltzen dira LMA motak klasifikatzeko: Franko-Amerikar-Britanikoa (FAB), ezaugarri mikroskopikoak eta immunofenotipoa (proteina ezagun batzuen espresioa zelula leuzemikoan) kontuan hartzen dituen (ikus 1. eranskina), eta Osasunaren Mundu Erakundea (OME), zelula leuzemikoaren informazio genetiko eta molekularra behatzen duena (ikus 2. eranskina) (2,3,5).

Diagnostikoa egiteko, lehenik eta behin, historia klinikoa aztertuko da eta miaketa fisikoa egingo zaio umeari. Medikuek leuzemia duela uste badu, odol eta hezur-muinaren **analisiak** (biopsia eta aspirazioa barne) egingo ditu. Hala, odol zelula kopurua, zelulen morfologia, hezur-muinaren konposizioa, immunofenotipoa etab. begiratu dira. Honekin batera, zenbait azterketa zitogeniko eta molekular egingo dira. Puntzio lunbarra egitea erabaki dezakete, likido zefalorrakideoan zelula leuzemikoen agerpena eman den aztertzeko, edota irudien bidezko probak eta proba molekular eta genetikoak egitea, anomalia zehatzak aurkitzeko. Hauek aztertuta umeari egokituriko tratamendua jarriko zaio (1,3-6).

Tratamenduaren helburua kimioterapia intentsiboa emanda gaixotasunaren behin betiko desagertzea da. Tratamenduak **bi fase** izan ohi ditu: **indukzioa** (1-2 ziklo izan ohi direnak), odoleko zelula leuzemikoak ezabatu eta hezur-muineko akatsa konpontzeko, eta **post-erremisioa edo kontsolidazioa** (mantentze tratamendua: kimioterapia dosi baxuekin (2-3 ziklo artean)), azken honen egin beharra hondar zelulak suntsitzea da, gaixotasunaren berragertzea ekiditeko (1,3-6).

Beste tratamenduei dagokionez; ume batzuei kimioterapia intratekala ere ematen zaie, likido zefalorrakideoan. Hau leuzemia garunera edo bizkar-hezur muinera iritsi edota buelta ez dadin egiten da. Arrisku altuko edo gaixotasunaren ezaugarri biologiko espezifiko batzuetako haur batzuen kasuan ama zelulen transplantea gomendatua dago. Terapia gidatuak, gomendatzen hasi dira azken urteotan, antigorputz monoklonalak eta immunoterapia erabilia hala nola, baina hauen efikazia aztertzeke dago oraindik (1,3-6).

Tratamenduaren **intentsitatearen eta konplikazio arriskuaren** eraginez garrantzitsua da tratamendua gaixotasunarekin jardun duten ospitaletan tratatzea; izan ere, tratamendua eman bitartean, umeak oso ongi kontrolatuak egon behar dira. Sarritan **aste asko** pasa behar dituzte **ospitalean** hemogrametan oso zenbaketa baxuak izaten baitituzte eta honek infekzioen arriskua

igotzen baitu (4).

1.2 Leuzemia mieloide akutuaren inguruko osasun-hezkuntza proiektuaren justifikazioa

1.2.1 Leuzemia mieloide akutuaren intentsitatea

Leuzemia ume eta nerabeen arteko minbizi ohikoena da, diagnostikatzen diren **3 minbizietatik 1 leuzemia** izaten da; gutxi gora behera 3000 haur dira diagnostikatuak urtero Estatu Batuetan. Baina, termino orokorretan hitz eginda, leuzemia ez da oso maiz ematen umeen artean. Diagnostikatuak diren **4 kasuetatik 3 LLA** izan ohi dira, gehienetan 2-5 urte bitartean ematen delarik, ume txuri eta hispanoetan (1,7).

LMA umeetan ematen den **bigarren** leuzemia **ohikoena** da (10 urtetik beherakoetan leuzemien % 13 suposatzen du). Haurtzaroko urte desberdinetan eman daiteke, baina pixka bat arruntagoa da bizitzako lehen urteetan eta nerabezaroan. Otiak 19 urtera 8.8ko tasa du milioiko (adin tarte horretan urtero 730ek jasotzen dute diagnostiko hau). Arraza guztietako neska eta mutilen antzeko frekuentzia duelarik adin tarte berdinetan (1,7).

Azpimota guztiak kontuan hartuta, 5 urteko biziraute tasa, hots, diagnostikoa eman eta gutxienez 5 urtez biziraute duten pertsona kopurua, % 65ekoa da. Hala ere, azpimotaren arabera tasa honek aldaketak dauka (4).

Espania mailan ere, haurtzaroan gehien ematen den minbizi mota leuzemia da (3 minbizitik 1 leuzemia kasuak dira). Horietatik $\frac{3}{4}$ LLArri dagokio, LMA baina 5 aldiz ohikoago izanik. LMAREN intzidentzia ez da ia aldatu azken urteotan; leuzemien artean LMAREN intzidentzia tasa % 19.1koa izan zen; altuena, 16.5, bularreko haurrena eta baxuena berriz, 5.6, 5 eta 9 urte artekoa. Nerabeetan LMAk leuzemia kasuen % 30eko tasa du, milioiko 7.0 kasurekin. **2001-2005** urte bitartean **LMAREN biziraute tasa LLAREN baina baxuagoa** izan zen, bai umeetan eta bai nerabeetan ere, umeetan % 59ko biziraupen pronostikoa zuen bitartean, nerabeetan % 30ekoa izan zuelarik (8).

Euskal Autonomia Erkidego (EAE) mailan berriz aipatzekoa da, 1990 eta 2012 urte bitartean diagnostikaturiko minbizi mota ohikoena leuzemia izan zela. Urte horietan, leuzemia pairatzen zuten 15 urtetik beherakoena tasa % 35.5ekoa izan zen (11.52 milioiko). 5 urtetik beherako haurrei diagnostikatu zitzaizkien minbizi kasuen % 41a leuzemiak izan ziren, 5-9 urte bitartean % 34a eta 10-14 urte bitartean % 23a suposatu zuen. Leuzemia hauetatik 1-14 urte bitarteko umeetan

LMAk % 12.8a suposatu zuen. 1990-2009 bitartean, 0-14 adin tartean, 5 urterako biziraupen tasa % 79.3an kokatuz (9).

1.2.2 Leuzemia mieloide akutuaren garrantzia

Zeinu eta sintomei dagokionez, LMAk, hainbat motatakoak sor ditzake, **arinetatik** (gripe edo gaixotasun pediatriko tipikoen antza izatetik) **larrietara**. Gehienetan sintoma hauek odol zelula osasuntsuen gabeziagatik (hezur muinak ez baitu hauek sortzeko gaitasunik) edo minbizi zelulen metaketagatik ematen dira: Globulu gorrien gabeziak (anemia); nekea, ahuldadea, zorabioak, hotz sentrazioa, buruko mina eta zurbiltasuna sortzen ditu. Globulu zurien gabeziak (neutropenia); sukarra eta infekzioak eragiten ditu. Plaketen gabeziak (tronbozitemia); hematoma, petekiak, hortz-oietako hemorragiak, epistaxiak eta beste hemorragia motak. Tronbosi trastornoak ere azal daitezke. Batzuetan, beste organoen (gibela, barea, begiak, azala, mukosak.....) edota gongoil linfatikoen hazkuntza eman daiteke, zelula leuzemikoen metaketaren ondorioz, mantxa, konkorrak edo minaren agerpenarekin adierazten dena (1-4,7).

Kimioterapiaren bigarren mailako efektuak pazientearen egoera eta ongizatea eta tratamendu motaren eta dosiaren arabera dira. Bigarren mailako efektuak kimioterapiak gorputzeko, eta ondorioz, hezur-muineko, zelula normaletan ere eragiten duelako ematen dira. Fatiga (neke sentrazio iraunkorra edo akidura fisiko, emozional edota kognitiboa), odol zelulen zenbaketa baxua, infekzio arriskua, hemorragiak eta hematoma, ahoko ultzerak, ilearen erorketa, gorakoak, goitikak, gose galera eta beherakoak ematen dira sarritan. Normalean sintoma hauek tratamendua amaitzean desagertzen dira (1,4).

Diagnostikorako eta tratamendurako prozedurak estresoreak dira umeentzako eta potentzialki distresaren (oihuka, joka eta ostikoak emanez azaleratzen dutena), antsietatearen eta depresioaren arduradunak dira, hauek beste sintoma batzuk ekar ditzaketelarik beraiekin: goitikak eta gorakoak, insomnia, amets gaiztoak, negarrak, mina eta azaleko arazoak adibidez. Jakina da, distresa, fatiga, nutrizio arazoak eta mina direla umei arazo gehien ekartzen dizkieten sintomak (10,11).

Minbizi izatea krisi egoera bat da, bai umearentzat bai bere ingurukoentzat, era estrukturalen eta emozionalen eragiten duena. Azken urteotan, umeen minbiziarekiko perspektibak aldatu badira ere, familia eta umeengan eragiten duen inpaktuak ez du behera egin, izan ere minbiziak berarekin erlazionaturik dakarren estigma larritasunarena eta heriotzarena da, umearen bizia arriskuan dagoela nabaria da eta hasiko duten sendatze prozesua oso gogorra (12,13).

Egoerak alterazio garrantzitsuak ekartzen ditu umearen bizian: errutinaren etenaldia ematen da, ospitalean ingresatu eta bere ikasketak eta gustatzen zaizkion zenbait ekintza, kirola hala nola, utzi beharko ditu gerta daitezkeen konplikazioengatik. Askotan kezkatuak azaltzen dira, triste eta sozialki isolaturik sentituz. Desberdin sentitzen dira; itxuraren aldaketak inpaktu handia sortzen du, independentzia galtzen da, kontzentrazio eta arreta arazoak datoz, trebetasun kognitiboak gutxitzen dira, errutinarekin jarraitzeko ezintasuna pairatzen dute, ekintzak egiteko gaitasunak murrizten dira, harremanetarako arazoak datoz... Ezjakintasuna ere etsai izan ohi dute, heriotzarekiko beldurra presente dutelarik. **Minbiziaren gestioak sufrimendu fisiko eta emozionala** sortzen du umeetan eta nahasmen psikologikoak garatzeko bulnerabilitatea areagotzen du, gaixotasunak ekar ditzakeen gorabeherak antsietatea, depresioa eta desesperantza (biziaren zentzuaren galera) bezalako gaitzetara eboluziona dezakete, bere egoera kliniko orokorrari eraginez. Honek guztiak, umearen bizi kalitatea urria izatea eragiten du (10-16).

Behin gaitza garaitu bada ere, aztarna fisiko, psikologiko eta sozialak gera daitezke. Sintoma fisikoei dagokienez: fatiga, mina, arazo muskulu-eskeletikoak, energia falta, disfuntzio sexuala eta antzutasuna, arazo kognitiboak... jasan ditzakete. Honetaz gain, paziente hauek loarekiko nahasmenak ere izan ohi dituzte. Sintoma hauek bizitza kalitatean eragiten dute. Egoera psikosozialari dagokionez, paziente askok distresa pairatzen dute, izan ere tratamendua bukatu eta sintomak jarraitzen dutenez, segurtasun falta nabaria da, hala ezjakintasuna sartzen da jokoan, ezinegon emozionala dakarrena, beldurrarekin batera. Biziraun duten pertsona askok, % 29ak, antsietatea edota depresioa pairatzen dute eta % 17-38ak estres post-traumatikoaren sintomak ere azaltzen ditu (17).

Umeaz gain, haren **ingurukoek** ere behar dute laguntza praktikoki, logistikoki, sozio-emozionalki, psikologikoki eta espiritualki, haietan ere alterazioak eman baitaitezke estres post-traumatikora edota depresiora iritsiz. Beste hitzetan esanda, **beraien osasuna ere arriskuan dago**.

- Gurasoek familiaren haustura, berrantolaketa eta gizarte rol aldaketa bizi, zaintzaile papera hartu eta lehentasunak aldatu beharko dituzte. Egoerak lanbidea eta etxea uztera daramatza asko (arazo ekonomikoak ekar ditzake honek), seme gaixoarekin egotera bideratuz haien bizitza. Nahi izaten dutena "guraso onak" izatea da eta honek zenbait ardura dakartza: bizitza normal bat mantentzea umearen gaixotasunak irauten duen bitartean, ume gaixoa babestearekiko estresa, gaixotasunarekiko erabakiak hartzea (erabaki latzak eta bide onaren zalantza presente izanik) eta gaixotasunak bikotean eragingo dituen kalteak. Honek estresa eta antsietatea sortzen dizkie, depresio, distres, isolamendu sozial eta tentsioekin batera (13,18-20).

- Anai-arrebek ere errutina aldaketak, tristura eta tentsioak nabari dituzte familiartean. Kognitiboki beren anai-arreben gaixotasuna eta bere beharrak ulertzeko gaitasuna dute, baina hala ere, beren bizi kalitate soziala eta emozionala kaltetuta atera daitezke. Osasuntsu dauden anai-arrebek ere, gaixo daudenek bezala, haserrea, depresioa, antsietatea, estresa, jelskortasuna, erruduntasuna (haiek osasuntsu egoteagatik) eta isolamendu soziala pairatzen dituzte. Gaixo dagoen anai/ahizpaz/arrebaz kezkatzen dira, sentimenduak eta beldurrak ezkutatu, buruhauste gehiago ez sortzearen. Distresa pairatzen dute, bizi kalitate urriagoa dute eta eskolara falta beharra askotan (13,19,21,22).

Umeen egoera eta jarrera gurasoen eta **familiaren** egoera emozionalari eta kudeaketa psikologikoari **lorturik** dago. Beraz, familiaren antsietate, depresio eta distresak umearen egoeran inpaktua izango du (10,18).

Honi aurre egiteko, **umeak informaturik** egotearen (bai bere gaixotasunaz eta baita bere inguruan gertatzen ari den guztiaz) garrantzia frogatu da, psikologikoki datorrenerako prestatzeak **kontrol** sentazio ematen baitu. Umeek zer gertatzen den ez badakite, beldurrak sortzen dira, hobekuntzan laguntzen ez dutenak. Izan ere, umeek zerbait larria gertatzen ari dela nabari dute, gaixotasunak bere gurasoetan duen inpaktua nabari baitute. Askotan, umeek ez dute bere gaixotasunaren inguruan hitz egin ezta galdetu nahi izaten, bere gurasoak ez larritzeko (10,13).

1.2.3 Leuzemia mieloide akutuaren urrakortasuna

Egoera hau hobetzeko, umearen **ongizatea eta bizi kalitatea bermatzeko, zenbait osasun-
hezuntza programa egin dira**: estresa eta antsietate mailak murrizteko, aurre egite gaitasunak hobetzeko (horrela estres post-traumatikoa pairatzeko aukerak gutxitzen baitira) eta egoera sozio-emozionala kudeatzen ikasteko. Motibazio psikosoziala lortzeko zenbait programek aurre egite gaitasunak, ariketa kognitibo-konduktualak, taldeko terapia programak, musikoterapia, erlaxazio... ariketak lantzen dituzte. Honekin batera, informazioa ematea, motibazio mezuak bidaltzea, istorio kontaketa, idaztea, muskulu erlaxazioa, arnasketa ariketak eta imajinazio interbentzioak garrantzitsutzat jotzen dira. Karga emozionalak arintzeko teknikak ere lantzea komenigarria da. Egoeraren pertzepzio positiboa eta erosotasun maila igotzea eta estresa gutxitzea espero da, honekin emozionalki egonkor mantentzen lagunduz, osasun mentala zainduz eta familien bizi kalitatea hobetuz (14,16).

Horretaz gain, arlo fisko, kognitibo, jarrera eta egoera sozio-emozionala lantzen dituzten prozedurak sortu nahi izan dituzte, animaliekin adibidez. Hauekin zentzumenak, eguneroko ekintzak eta sozializazioa lantzea da helburua. Hala, antsietate, estres eta depresio sintomak eta kortisol mailak jaisten direla frogatu da. Gosea igo, mina hobeto eraman (eta ondorioz analgesia gutxiago behar izatea) eta ongizate sententzia eta motibazioa igotzen direla frogatu da. Honekin batera, umeei komunikazioa eta harreman sozialak lantzeko aukera ere badute; egoerak ekarri duen familiarekiko eta lagunekiko urruntzea, ekintza sozialen murriztea eta harreman sozial urriak hobeto eramanez (15).

Ospitaleko umearen konforta areagotzeko, estresoreak murriztu ahal izateko ezinbestekoa da umeei informazioa ematea, hala umea prozedurarako prestatuko da eta komunikazioa ahalbidetzea prozeduran sentitu duenaren inguruan hitz egitea eta laguntza emozionala bermatzea. Honek, oreka emozionala mantentzen laguntzen baitu. Bestalde, umearen osasun subjektiboa hobetzen saiatu beharko gara, kontrolatu ditzakegun sintomak tratatuz, antsietatea murriztuz eta komunikazioa bermatuz (10,11).

Zerbitzu psikosozialen erabilerak inpaktu positiboa izango dute, berdinetik pasatzen ari diren familiekin hitz egitea lagungarria egiten zaie, esperientziak partekatzeko (13,18-20).

1.2.4 Leuzemia mieloide akutuaren arrisku-faktoreen analisia

Arrisku faktoreak gaixotasun bat garatzeko aukerekin dute zerikusia. Batzuk **bizi estiloarekin** loturik daude, baina ez da uste umeen leuzemia bezalako gaitzetan garrantzi handia dutenik. Izan ere, urte asko behar dira arrisku faktoreek gaitzaren garapena eragin dezaten (1).

Arrisku faktore **genetikoei** dagokienez, leuzemia gehienak **ez** daude kausa genetiko jakinekin **erlazionatuak**, baina zenbait sindrome genetikok leuzemia garatzeko arriskua handiagotzen dute. Arestian aipatu bezala, Downen Sindromeak umeari LMA garatzeko askoz aukera gehiago ematen dizkio. 8. kromosoman trisomia izateak ere arriskua areagotzen du. Li-Fraumeni sindromeak ere eragina du, TP53 geneari eragiten baitio, tumore ezabatzailea dena. Beste nahasmen genetikoei ere, Fanconi anemia eta neurofibromatosis adibidez, LMA pairatzeko arrisku handiagoarekin erlazionatua daude (1,2,7).

Sistema immunitarioko **herentziako zenbait arazo** ere, infekzio arriskutsuak pairatzeko arriskuaz gain, leuzemia garatzeko arrisku faktoretzat hartzen dira. Ataxia-telangiektasia, Wiskott-Aldrich sindromea, Bloom sindromea eta Schwachman-Diamond sindromea hala nola (1,2).

Leuzemia garatu duen anai-arreba izatea ez da adierazgarritzat hartzen, aldiz arriskua askoz

handiagoa da bikietako batek gaitza badu. Heldu izanik gurasoetako batek leuzemia pairatu badu ez du arriskua areagotzen (1,2).

Inguruneko arriskuei dagokionez, **erradioari** esposizioa izan izanak edo erradioterapia jaso izanak, **kimioterapia** edo zenbait **substantzia kimikoekiko esposizioak** eta sistema immunitarioko supresioa pairatu izanak leuzemia arriskua areagotzen du. Lehendik beste **minbizi** bat pairatu duten umeek LMA garatzeko arrisku altua dute. Leuzemia hauek tratamendua amaitu eta 5-10 urte bitartean garatzen dira eta tratatzeko zailak izan ohi dira (1,2).

1.3 Xede-taldearen aukeraketa eta justifikazioa

OSI Donostialdean LMAgatik ingresatuak dauden 6-8 urte bitarteko umeak osatuko dute Osasun-Hezkuntza Programa honen xede-taldea.

Arrisku faktoreetan esku hartzea ezinezkoa dugunez, gaitza diagnostikaturik duten umeetan esku hartu beharko dugu. Kasu hauetan osasun-hezkuntza proiektua diagnostikoa jaso eta ahalik eta lasterren martxan jartzea ezinbestekoa izango da, hasieratik behar duten **laguntza psikosoziala** jaso eta prozesu berri honetan parte hartuko duten faktore desberdinen **identifikazioa** egiten has daitezen, kontrola areagotuz. Hala, LMA gaitzaren prozesuan parte hartuko duten ekintzen ezagutza izateak bizitza aldaketaren **onarpena** lehenago ematea ahalbidetu eta honek antsietatea eta estresa jaitea eragingo luke. Batera etor daitezkeen gaitzak ekidinez, depresioa eta estres post-traumatikoa besteak beste (9,11,13).

LMAk 6-8 urte bitarteko adin tartean duen intzidentzia maila baxuenetarikoa bada ere, adin tarte honetan bizitza **aldaketa** hain handia izateak eta isolazioa jasan behar izateak eragin negatibo handi eta anitzak izan ditzakeela hartu da kontuan.

6-8 urte bitarteko adinean umeak lehen hezkuntzako lehen zikloan murgiltzen diren momentua da, umeen garapenaren aldaketa garaia izanik. Aldaketa guzti hauen atzean umeen ikasketa prozesua dago, eredutzat duten pertsona behatuz eta imitatuz gauzatzen dutelarik. Txikiagoak direnean helduak eredutzat dituzten bitartean oraingoan berdinen artekoen informazioa jasoz ikasten dute. **Garapen psikosozial eta emozionala** ematen da horrela. Esperientzia eta jende gehiagorekin elkarrekintza izan dutelako gizarte eta kultura arauak ulertzen hasten dira, jokabide sozialago bat aurkezten dute, enpatia erakutsiz, egoera sozialak ulertzen dituzte eta arazoei aurre egiteko gaitasuna erakusten dute. Harremanek garrantzia hartzen dute eta hala, ume bakoitzak bere identitatea sortzen du, lidergoa, komunikazioa, rola eta arauak sortuz eta

barneratuz. Elkarren artean konparatzen dira, perspektiba gehiago eta errealistagoak izanez. Honekin batera lagun taldeak sortzen dira, babes emozionala ematen dietelarik (23).

Arestian aipatutakoa kontuan harturik, behar beharrezkotzat hartzen da umea askatzen hasi eta mundua bere begiekin ikusten has dadila. LMA pairatzen duten hurrek aldaketa prozesu honetan haustura sufritzen dute, egoera dela eta batzuek atzera egitera ere irits daitezke, garapen naturala ekidinez. Ezingo dituzte berdinen eredu asko hartu eta ezingo dute esperientzia sozial askorik jaso haren inguruko gehienak helduak eta arrotzak izango baitira, haren gurasoez gain. Beraz prozesu hau behar bezala gerta ez dadila eman daiteke, umean gabeziak sortuz. Hau ekidin nahian eta hurrek ahalik eta prozesu eta garapen naturalena jaso dezaten Osasun Hezkuntza Programa hau sortu nahi da haienzako haien bizi kalitatea hobetu eta gerora, haien lehengo bizitzara bueltatzen diren momentuan, atzerapenik jasan ez dezaten.

1.3.1 Xede-taldearen ezagutzen, jarrerren, gaitasunen eta itxaropenen identifikazioa

Osasun-heziketa proiektua martxan jarri aurretik, garrantzitsua izango da xede taldearen gurasoekin elkarrizketa bat izatea familiaren LMAREN inguruko ezagutzen, jarrerren, gaitasunen eta osasun-hezkuntza honen inguruan izan ditzaketen itxaropenen berri izateko. Honekin lotuta, umearen egoera basalaren inguruan galdetuko diogu, zein jarrera aurkeztu duen eskolan, lagunekin... Zer kontatu dioten haren egoeraz, zer nahi duten hark jakitea, proiektutik zer espero den... Hala, haien behar eta interesen arabera osasun hezkuntza proiektua moldatu egingo da. Informazio hau jasotzeko elkarrizketa erdi-egituratu bat egingo zaie, plantilla bat jarraituz eta erantzunak jasoz, programaturiko egun batean, ospitaleko gela batean, umea presente ez dagoelarik (ikus 3. eranskina).

Behin gurasoekin hitz egin eta gero, umeari ere galdetu egingo zaio, zer den nahi duena, zer ikasi nahiko lukeen, zeintzuk diren haren zalantzak, ezinegonak... Hau gurasoekin elkarrizketa amaitu ostean egingo da, gurasoak presente daudelarik. Galdeketa hau programaren lehen egunean errepikatuko da, behin programa aurkeztuta eta gurasoak aurrean ez daudela, honetarako guk beteko dugun plantilla bat jarraituko dugu (ikus 4. eranskina).

2 HELBURUAK

2.1 Helburu nagusia

OSI Donostialdean LMAgatik ingresatuak dauden 6-8 urte bitarteko haurren bizi kalitatea hobetzeko Osasun-Hezkuntza Programa bat diseinatzea.

2.2 Bigarren mailako helburuak

- Xede-taldeak lortu behar dituen helburu pedagogiko nagusiak eta bigarren mailakoak formulatzea.
- Hezkuntza edukiak identifikatzea.
- Estrategia metodologikoak deskribatzea.
- Beharrezkoak diren antolakuntza-, giza- eta material- baliabideak identifikatzea.
- Proiektuaren emaitzen, prozeduraren, egituraren eta baliabideen ebaluazioa finkatzea.

3 METODOLOGIA

Planteaturiko helburua lortzeko, gaiaren inguruko bilaketa bibliografiko sistematizatu egin da 2020ko abendua eta 2021eko urtarrila bitartean, zenbait meta-bilatzaile (Biblioteca Virtual de Salud (BVS) eta Cochrane Plus) eta datu base desberdinetan (PubMed, Dialnet eta CUIDEN).

Informazioa lortu ahal izateko helburu nagusiaren PIO egitura horrela planteatu da:

- **Population** (pazientea): LMAgatik ingresatuak dauden 6-8 urte bitarteko haurrak.
- **Intervention** (interbentzioa/esku-hartzea): Osasun-heziketa proiektua.
- **Outcome** (emaitzak): Bizi-kalitatea hobetzea.

Ostean, atal bakoitzari dagozkien osasun-zientzietako deskribatzaileak (“Descriptores de Ciencias de la Salud” (DeCS) eta “Medical Subjects Headings (MeSH)) eta hitz-gako egokiak zehaztu dira (ikus 1. Taula).

2. Taula: PIO egitura erabiliz hautatutako DeCS, MeSH eta hitz-gakoak

PIO egitura	DeCS	MeSH	Hitz-gakoak
P LMAgatik ingresatuak dauden 6-8 urte bitarteko haurrak	- Leucemia Mieloide Aguda - Niño - Pediatría	- Acute Myeloid Leukemia - Child - Pediatrics	- Niñez/Childhood
I Osasun-heziketa proiektua	- Educación de la Población - Educación para la Salud	- Population Education - Health education	- Cuidados/ Cares - Necesidades/ Needs - Enferm*/Nurs*
O Bizi-kalitatea hobetzea	- Calidad de Vida - Impacto psicosocial - Salud de la familia	- Quality of Life - Psychosocial Impact - Family Health	- Psico-Oncologia

Iturria: Eginkizun propioa

Aurreko taula jarraituz, osasun-zientzietako deskribatzaileen eta gako-hitzen konbinazio ezberdinen bidezko bilaketetan AND eta OR operatzaile boolearrak erabili dira, ahalik eta emaitza egokienak lortu ahal izateko. Honekin batera, bi filtro aplikatu dira:

- **Hizkuntza:** euskara, gaztelania, portugesa eta ingelesa.
- **Urte muga:** informazio eguneratua aurkitzeko asmoz, azken 5 urteetako artikulak erabili dira. Aipatu beharra dago bilaketak 2020 eta 2021 urte bitartean egin direnez, filtroa 2015-2021 urte bitartekoa izan dela.

Honekin jarraituz, artikulak aukeratzeko orduan zenbait barneratze- eta kanporatze-irizpide ezarri dira:

- Barneratze-irizpideak: lzenburua eta laburpena gaiari egokitzea, leuzemien inguruan hitz egitea, umea izatea gaixotasuna pairatzen duena, lehen minbizia izatea, familia kontuan hartzea, gaixotasunaren eboluzioaz hitz egitea.
- Kanporatze irizpideak: gaixo dauden nerabeen, gazteen edo helduen inguruan hitz egitea, etiologia bakarrik aztertzea, gene espezifikoak eta haien inguruko aspektuak aztertzea, soilik profilaxiaren inguruan hitz egitea, ospitale desberdinen egoera konparatzea.

Bilaketa estrategia 5. eranskinean dago bilduta. Bertan, meta-bilatzaile eta datu-base bakoitzean emandako urratsak azaltzen dira; egindako bilaketa, aplikaturiko iragazkiak, barneratze eta kanporatze irizpideak aplikatu ostean geraturiko artikuluko kopurua eta azkenik, irakurketa kritiko egin ostean hautaturiko artikulak adierazten dira.

LMAREN datu gehiago lortu nahian, aipaturiko datu-base eta meta-bilatzaileez gain, minbiziarekin zerikusia duten hainbat webgune elektroniko kontsultatu dira:

- “American Society of Clinical Oncology” (ASCO) eta honekin loturik dagoen “Cancer.net”. Hauetatik umeen LMAREN zeinu eta sintomak, diagnostikoaren, tratamenduaren, etiologiaren, arrisku faktoreen eta intzidentziaren informazioa lortu da.
- “National Cancer Institute” (NIH). LMAREN diagnostikoaren eta tratamenduaren inguruko informazioa erabili da.
- Josep Carreras leuzemiaren fundazioko bloga erabili da LMAREN inguruko informazio orokorra lortzeko.
- “Asociación Española de Afectados por Linfoma, Mieloma y Leucemia” (AEAL)-ek duen LMAREN paziente eta familiarrentzako gida erabili da LMAREN informazio orokorra jasotzeko. Gida hau 2014ean publikatu bazen ere, eta umez espezifikoki hitz egiten ez badu ere, erabilgarritzat hartu da ematen duen informazioa dela eta.
- “Red Española de Registros de Cáncer” (REDECAN)-etik ateratako artikulua bat erabili da Europa eta Espainia mailan LMA duen intzidentzia aztertzeko.
- Eusko Jaurlaritzako umeen minbiziaren erregistroa erabili da EAeko LMAREN intzidentzia aztertzeko.

Xede-taldearen aukeraketaren justifikazioa egin ahal izateko haurren garapena hartu da kontuan eta informazioa jasotzeko, “Psicología del desarrollo: de la infancia a la niñez” liburua erabili da.

Honekin batera, osasun-hezkuntza proiektuaren egitura garatzeko “Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra”-k garaturiko “Manual de Educación para la Salud” eskuliburua eta “Métodos educativos en salud” liburua erabili dira.

Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailak duen Heziberri programako “Guía para la elaboración y evaluación de unidades didácticas” erabili da programari unitate didaktiko forma emateko eta umeen garapen egokirako duen “Oinarrizko hezkuntzako curriculum” eta “Marco del modelo educativo pedagógico” hartu da kontuan landu beharreko zenbait aspektu jorratzeko.

4 PLANGINTZA

4.1 Xede-taldeak lortu behar dituen helburu pedagogikoak

4.1.1 Nagusia

OSI Donostialdean LMAgatik ingresatuak dauden pairatzen duten 6-8 urte bitarteko haurrek beren egoera eta jasango duten prozesuaren inguruko ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak bereganatzea.

4.1.2 Bigarren mailakoak

OSI Donostialdean LMAgatik ingresatuak dauden 6-8 urte bitarteko haurrek hau lortuko dute:

1. Minbiziaren definizioa adieraztea lehen saioaren bukaerarako (EZAGUTZAZKOA).
2. LMAren deskribapena egitea bigarren saioaren bukaerarako (EZAGUTZAZKOA).
3. LMAren zeinu eta sintomak eta bigarren mailako efektuak zein diren azaltzea bigarren saioaren amaierarako. (EZAGUTZAZKOA)
4. Haien prozesuaren perspektiba konpartitzea bigarren saioan zehar (JARRERA EDO GAITASUNEZKOA).
5. Gorputzaren kontzientzia sortzea eta gorputzeko atal desberdinak identifikatzea hirugarren saioaren amaieran (GAITASUNEZKOA).
6. Psikomotrizitate ariketak egitea astean bitan gutxienez ospitalean dauden bitartean (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).
7. Erlaxazio teknikak azaltzea hirugarren saioaren amaierarako (EZAGUTZAZKOA).
8. Erlaxazio ariketak egiteko gaitasuna erakustea OHePren amaierarako eta egunean bitan gauzatzea (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).
9. Egoera desberdinen aurrean haren eta inguruko sentimenduak identifikatzea eta adieraztea laugarren saioaren amaierarako (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).
10. Sentimenduak izendatzea eta haien desberdintzen jakitea laugarren saioan zehar (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).
11. Bakoitzak bere sentimenduak adieraziko ditu OHeP guztian zehar (GAITASUNEZKOA).
12. Ospitalean izan dituzten pentsamendu negatiboak positibo bihurtzeko teknikak menderatzea eta aplikatzea ikastaro amaierarako (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).

13. Umeak ospitale barruko estresoreak identifikatzea bosgarren saioan zehar (GAITASUNEZKOA).
14. Egoera desberdinetan aurre egite estrategiak zeintzuk diren adieraztea OHePan zehar (EZAGUTZAZKOA).
15. Haien izaera eta nortasuna deskribatzea seigarren saioan zehar (GAITASUNEZKOA).
16. Haiek zein diren eta jasan dituzten aldaketak adieraztea, haien indargune eta ahuldadeekin, seigarren saioan zehar (GAITASUNEZKOA).
17. Egoera bakoitzaren aurrean dituzten rol desberdinak identifikatzea seigarren saioan zehar (GAITASUNEZKOA).
18. Pertsona batek izan ditzakeen rolak desberdintzea seigarren saioan zehar (GAITASUNEZKOA).
19. Lagunak zer diren eta haiekin duten harremana azaltzea zazpigarren saioan zehar (GAITASUNEZKOA).
20. Komunikazio onaren garrantzia adierazten dituzten ariketak gauzatzea zazpigarren saioaren amaierarako (GAITASUNEZKOA).
21. Adierazitako liburua irakurtzea (laguntzarekin bada ere) eta esaldi laburrak idazteko gaitasuna adieraztea ikastaroaren amaierarako (EZAGUTZAZKOA ETA GAITASUNEZKOA).
22. Kenketa eta gehiketa sinpleak egiteko gaitasuna erakustea ikastaroaren amaierarako (EZAGUTZAZKOA).
23. Amaierako proiektua gauzatzeko gaitasuna adieraztea (EZAGUTZAZKOA ETA JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).

4.2 Jardueren programazioa

OHeP hau interbentzio bidez burutuko da. LMA pairatzen duten eta ospitalean ingresaturik dauden umeengan esku hartu nahi da, hezkuntza emateaz gain, haien ospitaleko estantzia eramangarriago egin nahirik. Honetarako, erabiliko den metodologia pedagogia integratzailean edo aktiboan oinarrituko da, modelo bio-psiko-soziala jarraituz eta garapen pertsonal eta soziala bermatuz. Teknika hezitzaile aktiboak erabiliz, ikasleak ardatz nagusitzat hartuta, ezagutza, jarrera eta gaitasunen lorpena ematen dela erakutsi da. Honekin batera, pedagogia parte-hartzailea, soziala eta ez direktiboa erabili nahi da, ikaskuntza adierazgarri bat lortuz (errealitate propioa ikertu eta adieraztea, sakontzea eta aurre egitea) (24,25).

Umeengan eragina dutenez, ikasketa garapenak eta oinarritzko kompetentzien garapenak interes

berezia du, beraz, programa unitate didaktiko eran sortzea erabaki da, hezkuntza-ikasketa prozesua antolatzeko garaian edukia ikaslearen mailara, eskura dauden baliabideetara eta lortu beharreko helburuetara egokitzen baita. Honetarako, erronka batetik hasiko gara “sor dezagun gure egoera azaltzeko “podcast” (irratsaio) bat”. Bertan, programan zehar ikasitako guztia integratzeko helburuarekin (26).

Unitate didaktikoak 3 fasez osaturik daude: lehen edo hasierako fasea (gaiaren aurkezpena, aurre-ideiak eta abiapuntua garatzeko, eta unitatearen aurkezpena egiten den fasea, plangintza eginez, zer ikasiko duten eta zertarako), garapen fasea (ezagutzak garatu eta barneratu, gaitasunak landu, ...) eta aplikazio eta komunikazio fasea (errepaso eta finkatze dinamika landu eta erronka garatzen delarik) (26).

Ospitaleko estantziak ez du haurren oinarritzko hezkuntza hautsi behar, beraz, lehen hezkuntzako lehen zikloan lortu beharreko gaitasunak ere bermatzen ahaleginduko gara unitate didaktikoaren barnean. Honetarako, “Oinarritzko Hezkuntzako Curriculum-ak” adierazten dituen konpetentziak landu nahiko ditugu. Konpetentzia bakoitzean zehazki landuko dena ikusteko **ikus 6. eranskina** (27,28).

Programa hau OSI Donostialdeako “3ºAzul” unitatean dagoen jolas-gelan egiteko baimena eskatuko da eta astean behin burutuko diren euskarazko zortzi saioz osatua dago. Gehienez, 5 pertsonako taldeetan banatuko da eta saioek 3 ordu bitarteko iraupena izango dute, tartean atsedeen bat egongo delarik. Umeen egoera delikatuak dela eta saio bakoitza baina egun bat lehenago harekin lanean ari den ekipoari eta gurasoei deituko zaie, zer moduz dauden galdetu eta haien egoeraz hitz egiteko. Saioan parte hartzeko egoeran aurkitzen ez badira **7.eranskinean** azaltzen den bezala antolatuko gara.

Saio bakoitzean gai konkretu batean zentratuko gara, eta honetarako baliabide didaktiko desberdinak erabiliko ditugu;

- Inprimaturiko materiala: liburuak, txostenak, posterrak, ...
- Material bisuala: marrazkiak, argazkiak, ...
- Entzuteko materiala: abestiak eta grabazioak.
- Ikus-entzunezko materiala: bideoak.

Aipatzekoa da, saioetarako prestaturiko material guztia osasun-agenteentzat klaseetan eman beharreko gaien inguruko gida eran sortuak izan direla; osasun-agenteek informazioa ahoz transmititu beharko diete haurrei eta hauek jaso beharko dute informazioa. Osasun-agenteek taldea osatzen duten haurren ulermen eta jarrera aztertu eta bertan transmititu beharreko informazioa haiei moldatu beharko diete, hala, xede-taldeari ahalik eta gehien egokitzen zaion

programa bat sortu nahi delarik, ikasketa prozesua bermatuz.

4.2.1 1. saioa

Unitate didaktikoaren barnean “Hasierako fasea” jorratuko dugu. Bertan, programa azalduko da, sarrera moduan, eta umeak elkarren artean ezagutuko dira eta gu ezagutuko gaituzte. Espazio eroso bat sortu nahi da programan landuko diren gai guztiak konfiantzaz garatu daitezten eta pentsatzen edo sentitzen dena adierazteko lotsarik izan ez dezaten.

OSI Donostialdean LMAagatik ingresatuak dauden 6-8 urte bitarteko haurrek ondorengo helburuak landuko dituzte:

- 1. Minbiziaren definizioa adieraztea lehen saioaren bukaerarako (EZAGUTZAZKOA).
- 11. Bakoitzak bere sentimenduak adieraziko ditu OHeP guztian zehar (GAITASUNEZKOA).
- 21. Adierazitako liburua irakurtzea eta esaldi laburrak idazteko gaitasuna adieraztea ikastaroaren amaierarako (EZAGUTZAZKOA ETA GAITASUNEZKOA).
- 23. Amaierako proiektua gauzatzeko gaitasuna adieraztea OHeP amaierarako (EZAGUTZAZKOA ETA JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).

3. Taula: Lehen saioaren antolaketa.

Lekua	Osasun-agenteak	Gaiak	Baliabideak
OSI Donostialdeako 3. urdineko jolas-gela.	- Erizaina. - Peditra. - Pedagogoa.	Hasiera fasea (aurre-ideiak, plangintza eta aurkezpena): - 1. gaia: zer da minbizia?	- Ordenagailua eta proiektorea. - Bideoa. - Pilota bat. - Alfabetoa. - Boligrafo eta errotulagailuak. - Grabaketa makina. - Liburuak
LANDUTAKO HELBURUAK	TEKNIKA ETA GARAPENA		IRAUPENA
Aurkezpena 11.	Elkartze teknikak: Ezagutza jolasen bidez bakoitzak bere burua aurkeztuko du: izena, adina eta bere gaixotasuna eta egoera adieraziz, honekin batera bere ezaugarri esanguratsuenak esango ditu. Hau pilota bat elkarri pasaz eta borobilean eserita egingo dugu. Denek parte hartu beharko dute (bai erizainak, bai medikuak, bai pedagogoa bai xede-taldeak).		15'
	Elkartze teknika: Honen ostean, binaka jarri eta “kontrolatu zure barra” jolasari ekingo dugu: Binaka jarriko gara eta batak besteari barre eginaraziko dio hitzik esan gabe, keinuekin eta aurpegi arraroak jarritz. Batek irri egiterakoan eskua elkar txokatu beharko dute eta bikotekidez aldatuko dugu.		15'
	Elkartze teknika Proiektua azalduko zaie, laburpen txiki bat eginez, bertan jorratuko diren gaiak aurkeztuz eta metodologia azalduz. Gero, bertan lortu edo landu nahi dutenaren ideiak azalduko dituzte eta denek elkarrekin adostuta programaren plangintza egingo dugu.		15'

	Elkarrekin kronograma sortuko dugularik.	
21.	Esposizio teknika: Kartulinaz eginiko alfabetoa entregatuko zaie, elkarrekin irakurriko dugu eta letra bakoitzaren ostean harekin hasten den hitz bat esango dugu. Hizkuntzaren eta komunikazioaren beharra azalduko zaie eta hau ondo ikasi eta landu beharko dutela. Etxeko lanak bidaliko zaizkie, entregaturiko alfabetoan, letra bakoitzaren azpian, haien hitz gustukoena idatzi beharko dute. Hala idazketa eta irakurketa lantzen hasiko gara. Beharrezkoa badute gurasoei laguntza eska diezaieketela azalduko diegu eta hurrengo saioan alfabeto osatua landuko dugula.	20'
Atsedena	Jolasa: "Harri-orri-ar" lasterketa. Bi taldetan banatuko gara, bat jolas-gelaren punta batean jarri eta bestea bestean jarriko delarik, zig-zag zirkuitu bat markatuko dugu. Bi taldeetako lehenengoak aterako dira, zirkuitua jarraituz, eta elkar topo egiten duten momentuan "harri-orri-ar"era jokatu beharko dute, irabazten duenak aurrera jarraituko du eta galtzen duena bere taldekideekin itzuliko da, bere taldekideen hurrengo aterako delarik kontrakoarekin topatu eta jolastera. Helburua aurkarien hasiera puntura iristea izango da.	15'
1. 11.	Bideo bidezko esposizio teknika: Pirritx eta Porrotxen "Eskerrik Asko" antzerkia ikusiko dugu eta gero ikusitakoaren inguruan hitz egingo dugu, haien ikuspuntua zein den eta minbizia nola ulertzen duten. Ikusitakoa eredu hartuz minbiziaren dinamika azalduko dugu, nola eragiten dion gorputzari eta pertsonari. Ondoren hezitzaileek minbizia zer den argi azalduko dielarik, laburpen eran.	1 ordu 45'
11. 23.	Erronka lortu ahal izateko grabaketa egingo da, umeek minbiziaren duten ideiarekin.	10'
21.	7. saiorako nahi duten liburua irakurtzeko eskatuko zaie, haien ikaskideei saio horretan ipuin kontalariz egingo dietela azalduta. Zenbait liburu gomendatuko zaizkie: <ul style="list-style-type: none"> - Mari mutila naiz eta zer - Bihotza lo daukat eta zer - Pobreak gara eta zer - Kanpoko naiz eta zer - Arrosa eta leuna Hurrengo saiorako alfabetoa osaturik ekarri beharko dutela gogoraraziko zaie.	5'
Ebaluaketa	Saioan jorratutakoa ebaluatuko dugu: Umeei hiru aurpegidun kartulinak banatuko zaizkie: <ul style="list-style-type: none"> - Berdea, pozik - Horia, neutro - Gorria, triste Osasun agenteek egindako ekintza bakoitzaren inguruan galdetuko diete; parte-hartu duten osasun agenteen inguruan eta erabilitako materialaren inguruan hauek iruditu zaienarekin bat datorrenaren aurpegia altxatuko dutelarik. Agenteak datu hauek balorazio orriko check-lista betez apuntatuko ditu (ikus 8.eranskina).	10'

Iturria: Egileak egina

4.2.2 2. saioa

Unitatearen barruan "Garapen fasearen" barnean sartuko gara, dagokigun gaiak jorratuz.

Saio honetan lehenik LMA zer den ikasiko eta haiek nola bizi izan dutenaren inguruan eztabaidatuko dugu. Bakoitzak diagnostikoaren eta tratamenduaren inguruan hitz egingo dugu,

bigarren mailako efektuetan gehiago sakonduz. Gainera, LMA haien adinarekin pairatu zuen gazte batek hitz egingo die, haren esperientzia eta pairatu zituen tratamenduaren efektuak azalduz.

OSI Donostialdean LMAgatik ingresatuak dauden 6-8 urte bitarteko haurrek ondorengo helburuak landuko dituzte:

- 2. LMAREN deskribapena egitea bigarren saioaren bukaerarako (EZAGUTZAZKOA).
- 3. LMAREN zeinu eta sintomak eta bigarren mailako efektuak zein diren azaltzea bigarren saioaren amaierarako (EZAGUTZAZKOA).
- 4. Haien prozesuaren perspektiba konpartitzea bigarren saioan zehar (JARRERA EDO GAITASUNEZKOA).
- 11. Bakoitzak bere sentimenduak adieraziko ditu OHeP guztian zehar (GAITASUNEZKOA).
- 21. Adierazitako liburua irakurtzea eta esaldi laburrak idazteko gaitasuna adieraztea ikastaroaren amaierarako (EZAGUTZAZKOA ETA GAITASUNEZKOA).
- 23. Amaierako proiektua gauzatzeko gaitasuna adieraztea OHeP amaierarako (EZAGUTZAZKOA ETA JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).

4. Taula: Bigarren saioan antolaketa.

Lekua	Osasun-agentek	Gaiak	Baliabideak
OSI bakoitzeko 3. urdineko jolas-gela.	- Gaia ezagutzen duten erizaina eta pediatra. - Pedagogoa. - LMA 6-8 urte bitartean pairatu duen gaztea.	Garapen fasea: - 2. gaia: LMA eta sintomak. - 3. gaia: tratamenduaren bigarren mailako efektuak.	- Posterra. - Orri zuriak. - Errotulagailuak. - Margoak. - Boligrafoak. - Grabaketa makina.
HELBURUAK	TEKNIKA ETA GARAPENA		IRAUPENA
Aurkezpena	Elkartze teknika: Izenak gogorarazi eta agente berriak aurkeztuko ditugu (kasu honetan erizaina, pediatra, pedagogoa eta haien adinarekin LMA pairatu zuen gaztea izango direlarik). Lehengo saioan ikusitakoa gogorarazi eta saioan landuko dena azalduko dute hezitzaileek. Xede-taldeak haien iritzia esan eta adostasun batean saioa programatuko da.		10'
21.	Alfabetoa: Aurreko saioan entregaturiko alfabetoan haien hitz gustukoenak idatzi dituztela bermatzeko borobilean eseri eta hitzen inguruan hitz egingo dugu, zergatik den haien gustukoena galdetuz. Hala, hitz bakoitza ongi idatzia dagoela ikusiko dugu eta hitzaren esanahia ongi ulertzen dutela ziurtatuko dugu.		10'
2. 3.	Esposizio teknika: Posterra erabiliz (ikus 9. eranskina), LMA zer zen azalduko da. Haren zeinu eta sintomak azalduko dira eta gorputzean eta bizi kalitatean dituen eraginak ere azalduko dira, bakoitzak haien bizitzan pairatu dituenak azalduz.		25'
4. 11.	Hausnarketa teknika: Behin gaixotasunaren ideia bat hartuta, ideia nagusiak birpasatu eta espresioa garatzearen, gaixotasunak haientzat duen itxuraren marrazki bat egin beharko dute , ateratzen zaiena espresatuz.		20'

11. 21.	Esposizio teknika: Hitz elkartuen jolasa egingo dugu, hitzekin jariakortasuna lortzeko . Hitz bat esango du lehenengoak eta ilara jarraituz hitzaren azken silabarekin hasten den beste hitz bat esan beharko du hurrengoak. Ideia gabe gelditzen garen momentuan hitz berri batekin hasiko gara. Hausnarketarako teknika: Jariakortasunarekin jarraituz, LMArekin zerikusia duen istorio bat asmatu ko dugu, borobilean jarriko gara eta bakoitzak esaldi bat esango du. Ondoren, elkarren artean esaldi guztiak lotuko ditugu eta aukeratzen dugun bozeramaileak istorio guztia kontatu beharko du.	20'
Atsedena	Jolasa: Zapitxoaren jolaserara jolastuko dugu.	20'
3. 4. 11.	Hausnarketa teknika eztabaidarekin: LMA 6-8 urte bitartean pasa zuen gazte batek bere esperientzia, prozesua nolakoa izan zen, eta tratamenduaren bigarren mailako efektuak... azalduko ditu. Gero, haien inguruko hausnarketa egingo dugu, bakoitzari zer eragin dion eta nola sentitzen den tratamendua jasotzerakoan eta jaso eta gero.	35'
3. 4.	Esposizio teknika: Azaldutako gaien inguruko laburpen bat egingo du hezitzaileak eta harrek ulertu dutela ziurtatuko da.	15'
11. 23.	Erronka lortu ahal izateko umea bakoitzak, bakarka, saioan ikasi eta sentitu duenaren inguruko grabaketa egingo du.	10'
21.	7. saiorako nahi duten liburua irakurri behar dutela gogoraraziko zaie.	5'
Ebaluaketa	Saioan jorratutakoa ebaluatuko dugu: Umeei hiru aurpegidun kartulinak banatuko zaizkie: - Berdea, pozik - Horia, neutro - Gorria, triste Osasun agenteek egindako ekintza bakoitzaren inguruan galdetuko diete; parte-hartu duten osasun agenteen inguruan eta erabilitako materialaren inguruan hauek iruditu zaienarekin bat datorrenaren aurpegia altxatuko dutelarik. Agenteak datu hauek balorazio orriko check-lista betetz apuntatuko ditu (ikus 8.eranskina).	10'

Iturria: Egileak egina

4.2.3 3. saioa

Saio honetan gorputza izango dugu gai nagusitzat. Umeei gorputzaren kontzientzia hartu eta psikomotrizitate ariketa errazak ikastea izango da helburua, gerora astean bitan gutxienez egin ahal ditzaten, gorputzaren ongi izatea sustatzeko.

Hala, gorputzak sufritzen duen bakoitzean kontziente izatea lortu nahiko dugu. Ongi dagoenean energia osoa sentitu eta okerrera doanean lehen zeinuak identifikatzeko gaitasuna garatu ahal izateko.

Honekin batera, sufritzen duten estresa hobeto kudeatzeko erlaxazio ariketa batzuk erakutsiko dizkiegu, arnasketa kontrolarekin zerikusia izango dutenak.

Saio hau gauzatu ahal izateko fisioterapeuta bat izango dugu osasun-agente bezala erizain eta pedagogoarekin batera. Saioa honek eramango duelarik.

OSI Donostialdean LMAtatik ingesatuak dauden 6-8 urte bitarteko hurrek ondorengo helburuak landuko dituzte:

- 5. Gorputzaren kontzientzia sortzea eta gorputzeko atal desberdinak identifikatzea hirugarren saioaren amaieran (GAITASUNEZKOA).
- 6. Psikomotrizitate ariketak egitea astean bitan gutxienez ospitalean dauden bitartean (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).
- 7. Erlaxazio teknikak azaltzea hirugarren saioaren amaierarako (EZAGUTZAZKOA).
- 8. Erlaxazio ariketak egiteko gaitasuna erakustea OHePren amaierarako eta egunean bitan gauzatzea (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).
- 11. Bakoitzak bere sentimenduak adieraziko ditu OHeP guztian zehar. (GAITASUNEZKOA).
- 21. Adierazitako liburua irakurtzea eta esaldi laburrak idazteko gaitasuna adieraztea ikastaroaren amaierarako (EZAGUTZAZKOA ETA GAITASUNEZKOA).
- 22. Kenketa eta gehiketa sinpleak egiteko gaitasuna erakustea ikastaroaren amaierarako (EZAGUTZAZKOA).
- 23. Amaierako proiektua gauzatzeko gaitasuna adieraztea OHeP amaierarako (EZAGURZAZKOA ETA JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).

5. Taula: Hirugarren saioaren antolaketa.

Lekua	Osasun-agenteak	Gaiak	Baliabideak
OSI bakoitzeko 3. urdineko jolas-gela.	- Erizaina. - Pedagogoak. - Fisioterapeuta.	Garapen fasea: - 4. gaia: Gorputzaren kontzientzia eta psikomotrizitatea. - 5. gaia: Erlaxazio teknikak.	- Gorputz atalen azalpena. - Landareak. - Margoak eta papera. - Globoak/Pilotak. - Matematiketako txostena. - Uztailak, konoak, papera. - Esterilak/Mantak. - Grabaketa makina.
HELBURUAK	TEKNIKA ETA GARAPENA		IRAUPENA
Aurkezpena	Elkartze teknika: Izenak gogorarazi, zer moduz dauden galdetu eta fisioterapeuta aurkeztuko dugu. Honek, saioan landuko duguna azalduko digularik, hurrekin saioaren egituraren inguruan hitz egin eta adostasunera iritsiko gara, saioa era egokian burutu ahal izateko.		10'
5.	Esposizio teknika: Azalpena eztabaidarekin: Hurrei gure gorputzaren atal desberdinak eta funtzionamendua azalduko zaie, osasun agenteek txostena jarraituko dutelarik azalpenak emateko (ikus 10. eranskina).		10'
5.	Gaitasunak garatzeko teknika: Taldea binaka edo hirunaka zatituko dugu, eta globo bat erabiliz bere gorputzeko atal ezberdinekin globoa puntu batetik bestera garraiatu beharko dute apurtu gabe. Hala gorputz atal horretan zentratuko dira globoa garraiatu ahal izateko, haren kontzientzia hartuz .		10'
5. 11.	Hausnarketa teknika: ariketa bitartez: Umeei landare bat emango zaie, eta metafora bat egingo da haien gorputza eta landarearen inguruan (landarearen eta gorputzaren metaforak erabiliko		20'

	dira izaki bizidunak eta bizigabeak laburki azaltzeko). Landarea zaindu beharko dute eta haien gorputza osasuntsu egoteko aholkuak emango zaizkie. Honekin batera landarearen azpian paperak gordetzen joan beharko dira, astero-astero haien gorputza nola dagoen deskribatzen duen esaldi batekin batera , non sentitu duten min, zer nabari duten desberdin, zer duten indartsu... Azken saioan hauek jaso eta haien gorputzaren kontzientziaren inguruan hausnartuko dugu.	
Atsedena 22.	Esposizio teknika: Gorputzetik atentzio kentzeko matematiketako ariketa errazak egiten hasiko gara. Hasteko "Ezetz 20rarte zenbatu" jolasa jarriko dugu habian. Umeak 20rarte zenbatzea lortu beharko dute hurrenkerarik gabe, era desordenatuan, eta elkar errepikatu gabe. Gero berdina egingo dugu baina binaka eta azkenik hirunaka. Ondoren erreleboetara jolastuko dugu, baina matematiketako eragiketa eta kenketak eginez. Ilaran jarriko dira eta eragiketak egiten hasiko dira, batek ariketa bukatzean hurrengoari pasa beharko diolarik (ikus 11. eranskina, erabiliko den plantilla ikusteko).	20'
5. 6.	Gaitasunak lortzeko teknika: Demostrazioa eta entrenamendua: Fisioarekin psikomotrizitate saioa egingo da, ariketa desberdinak landuko direlarik. 15 minutuko beroketa egingo da, 40 minutuko saioa eta 10 minutuko lasaitze ariketak landuko dira (ikus 12. eranskina).	1h 5'
5. 7. 8.	Gaitasunak lortzeko teknika: Demostrazioa eta entrenamendua: Fisioarekin batera erlaxazio teknika desberdinak ikasi eta landuko ditugu. Arnasketa kontzientea landuko dugu, erlaxazioa lortzeko helburuarekin (ikus 13. eranskina)	15'
11. 23.	Erronka lortu ahal izateko umeak saioan ikasi eta sentitu duenaren grabaketa egingo du.	10'
5. 6. 8. 11. 21.	Gogoraraziko zaie: - Psikomotrizitate ariketak egitea astean bitan gutxienez ospitalean dauden bitartean. - 7. saiorako nahi duten liburua irakurri behar dutela. - Esnatzean eta ohera sartu baino lehen erlaxazio ariketak 10 minutuz egitea. - Landarea zaindu eta astero haien gorputzean sentitu dutenaren esaldi bat gorde beharko dute landarearen azpian, gerora 8. saioan idatzi denaren inguruan hitz egingo dugularik.	10'
Ebaluaketa	Saioan jorratutakoa ebaluatuko dugu: Umeei hiru aurpegidun kartulak banatuko zaizkie: - Berdea, pozik - Horia, neutro - Gorria, triste Osasun agenteek egindako ekintza bakoitzaren inguruan galdetuko diete; parte-hartu duten osasun agenteen inguruan eta erabilitako materialaren inguruan hauek iruditu zaienarekin bat datorrenaren aurpegia altxatuko dutelarik. Agenteak datu hauek balorazio orriko check-lista betez apuntatuko ditu (ikus 8.eranskina).	10'

Iturria: Egileak egina

4.2.4 4. Saioa

Sentimenduei zuzenduriko saioa izango da, identifikazioari eta adierazpenari emango zaie garrantzia. Osasun-agentetzat psikologo bat etorriko da erizain eta pedagogoz gain, hark saioa gidatu dezan.

OSI Donostialdean LMAtatik ingresatuak dauden 6-8 urte bitarteko haurrek ondorengo helburuak landuko dituzte:

- 5. Gorputzaren kontzientzia sortzea eta gorputzeko atal desberdinak identifikatzea hirugarren saioaren amaieran (GAITASUNEZKOA).
- 6. Psikomotrizitate ariketak egitea astean bitan gutxienez ospitalean dauden bitartean (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).
- 8. Erlaxazio ariketak egiteko gaitasuna erakustea OHePren amaierarako eta egunean bitan gauzatzea (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).
- 9. Egoera desberdinen aurrean haren eta inguruko sentimenduak identifikatzea eta adieraztea laugarren saioaren amaierarako (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).
- 10. Sentimenduak izendatzea eta haiek desberdintzen jakitea laugarren saioan zehar (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).
- 11. Bakoitzak bere sentimenduak adieraziko ditu OHeP guztian zehar (GAITASUNEZKOA).
- 12. Ospitalean izan dituzten pentsamendu negatiboak positibo bihurtzeko teknikak menderatzea eta aplikatzea ikastaro amaierarako (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).
- 21. Adierazitako liburua irakurtzea eta esaldi laburrak idazteko gaitasuna adieraztea ikastaroaren amaierarako (EZAGUTZAZKOA ETA GAITASUNEZKOA).
- 23. Amaierako proiektua gauzatzeko gaitasuna adieraztea OHeP amaierarako (EZAGUTZAZKOA ETA JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).

6. Taula: Laugarren saioaren antolaketa.

Lekua	Osasun-agentekak	Gaiak	Baliabideak
OSI bakoitzeko 3. urdineko jolas-gela	- Erizaina. - Pedagogoak. - Psikologoak.	Garapen fasea: - 6. gaia: Sentimenduak	- "Koloretako munstroa" liburua. - Kartulinak eta errotulagailuak. - Bozgorailuak, musika ekipoa. - Mozorroak. - Role-playing-eko txostena. - Grabaketa makina.
HELBURUAK	TEKNIKA ETA GARAPENA		IRAUPENA
Aurkezpena	Elkartze teknika: Izenak gogorarazi eta psikologoak aurkeztuko dugu. Honek, saioan landuko duguna azalduko dugu. Haurrek azaldukoak ulertu eta onartu beharko dute, haien desadostasunak aipatu eta saioa elkarrekin programatuko dugu.		10'
9. 10.	Esposizio eta gaitasunak joratzeko teknika: Irakurketa eztabaidarekin: "Koloretako munstroa" irakurriko dugu eta ondoren bertan azaltzen diren sentimenduen eztabaida txiki bat egingo dugu, liburuan azaltzen diren sentimendu oro ezagutzen eta identifikatzen dakiten aztertuko.		30'
11.	Parte hartutako lezioa: Sentimenduen inguruan hitz egingo dugu eta hauen adierazpenaren inguruan. Hala gizarteak osaturiko tabuak hautsi nahiko ditugu, tristeziaren eta haserrearen inguruan adibidez (ikus 14. eranskina, bertan azaltzen da osasun agenteek joratu beharrekoa). Honekin batera, besteen sentimenduak identifikatzearen inguruan hitz egingo dugu eta nola jardun behar dugun gure		30'

	inguruko bat era batera edo bestera sentitzen denean. Sentimenduak adierazteko gune seguru bat sortze aldera sentimendu adierazle bat sortuko dugu guztiok elkarrekin. Lehen erabilpena batera egongo dugu: ideia adierazle hau gelan utzi eta norbaitek bere sentimenduak adierazi nahi dituzenean hau erabiltzea izango da.	
Atsedena	Abesti lotuen jolasera jolastuko dugu: Bi talde osatuko ditugu eta moderatzaileak hitz bat esango du. Hitz hori duten abestiak abesten hasiko dira. Txandaka, batek abestia abestean hurrengoa hasiko da, horrela jarraituko dugu bi taldeetako bat ideia gabe geratzen den arte. Behin hori gertatuta hurrengo hitza emango da, beste erronda bat hasiko delarik.	25'
12.	Hausnarketa teknika: eztabaida bitartez: Ospitale barruko pentsamenduek sortzen dizkiguten sentimenduen inguruan hausnartuko dugu eta pentsamendu positiboak indartuko ditugu eta negatiboak positibo bihurtzen saiatuko gara, erlatibizatzen eta gauzen alde ona aurkitu nahian.	20'
10.	Gaitasunak eta jarrerak garatzeko teknika: Role-playing-a: Umeak binaka jarri eta egoera desberdinak azalduko zaizkie, bertan pertsonaia bakoitzak dituen sentimenduak identifikatu beharko dituzte. Ondoren antzerki bidez pertsonaien sentimenduak adierazi beharko dituzte eta kideek egoera eta sentimendu horiek zeintzuk diren asmatu beharko dute, egoera horren aurrean nola jorratuko luketen landuko dugu ostera (ikus 15. eranskina, bikote bakoitzari bertako egoera bat entregatuko zaie, jartzen duena esango zaielarik).	25'
11. 23.	Erronka lortu ahal izateko umeak saioan ikasi eta sentitu duenaren grabaketa egingo du.	10'
5. 6. 8. 11. 21.	Gogoraziko zaie: - Psikomotrizitate ariketak nola egin eta egin ditzatela astean bitan gutxienez ospitalean dauden bitartean. - Esnatzean eta ohera sartu baino lehen erlaxazio ariketak 10 minutuz egitea, nola egiten direnaren errepasso bat egingo dugu. - 7. saiorako nahi duten liburua irakurri behar dutela. - Landarea zaindu eta astero haien gorputzean sentitu dutenaren esaldi bat gorde beharko dute landarearen azpian, gerora 8. saioan idatzi denaren inguruan hitz egingo dugularik.	10'
Ebaluaketa	Saioan jorratutakoa ebaluatuko dugu: Umeei hiru aurpegidun kartulinarik banatuko zaizkie: - Berdea, pozik - Horia, neutro - Gorria, triste Osasun agenteek egindako ekintza bakoitzaren inguruan galdetuko diete; parte-hartu duten osasun agenteen inguruan eta erabilitako materialaren inguruan hauek iruditu zaienarekin bat datorrenaren aurpegia altxatuko dutelarik. Agenteak datu hauek balorazio orriko check-lista betez apuntatuko ditu (ikus 8.eranskina).	10'

Iturria: Egileak egina

4.2.5 5.Saioa

Saio honetan ospitaleko estresoreak identifikatzen saiatuko gara. Behin identifikaturik ditugunean, hauek azaldu eta ideiak aldatzen saiatuko gara. Hauen funtzionamendua ulertu eta ideiak birmoldatu eta sentimendu hauek aldatzea da gure grina; hauei aurre egiteko garaian antsietatea murriztu eta egin beharrekoak eramangarriagoak izan daitezten.

Osasun-agente bezala, erizain eta pedagogo egongo dira, psikologoarekin batera.

OSI Donostialdean LMAtatik ingresatuak dauden 6-8 urte bitarteko hurrek ondorengo helburuak landuko dituzte:

- 5. Gorputzaren kontzientzia sortzea eta gorputzeko atal desberdinak identifikatzea hirugarren saioaren amaieran (GAITASUNEZKOA).
- 6. Psikomotrizitate ariketak egitea astean bitan gutxienez ospitalean dauden bitartean (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).
- 8. Erlaxazio ariketak egiteko gaitasuna erakustea OHePren amaierarako eta egunean bitan gauzatzea. (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA)
- 11. Bakoitzak bere sentimenduak adieraziko ditu OHeP guztian zehar (GAITASUNEZKOA).
- 13. Umeak ospitale barruko estresoreak identifikatzea bosgarren saioan zehar (GAITASUNEZKOA).
- 14. Egoera desberdinetan aurre egite estrategiak zeintzuk diren adieraztea OHePan zehar (EZAGUTZAZKOA).
- 21. Adierazitako liburua irakurtzea eta esaldi laburrak idazteko gaitasuna adieraztea ikastaroaren amaierarako (EZAGUTZAZKOA ETA GAITASUNEZKOA)
- 22. Kenketa eta gehiketa sinpleak egiteko gaitasuna erakustea ikastaroaren amaierarako (EZAGUTZAZKOA).
- 23. Amaierako proiektua gauzatzeko gaitasuna adieraztea (EZAGUTZAZKOA ETA JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).

7. Taula: Bosgarren saioaren antolaketa.

Lekua	Osasun-agentek	Gaiak	Baliabideak
OSI bakoitzeko 3. urdineko jolas-gela	- Erizaina. - Pedagogo. - Psikologoa.	Garapen fasea: - 7. gaia: Aurre egite teknikak.	- Argazkiak. - Material klinikoa. - Rejillako txostena. - Arbela eta tizak. - Matematiketako txostena. - Grabaketa makina.
HELBURUAK	TEKNIKA ETA GARAPENA		IRAUPENA
Aurkezpena	Elkartze teknika: Elkarren artean agurtuko gara. Astearen inguruan hitz egin eta parte hartuko duten osasun agenteak aurkeztuko ditugu. Honekin batera egingo ditugun ekintzak aurkeztu eta hurrek haien nahiak adieraziko dituzte, saioaren programaketa elkarrekin egingo dugularik.		10'
11. 13.	Ikerketa teknika: Fotopalabra Ospitalean aurkitzen diren material eta gai desberdinak erakutsiko ditugu argazkien bitartez. Haur bakoitzak zertarako balio dutenaren eta nola erabiltzen direnaren inguruan hitz egingo du. Honekin batera, sortzen dizkion sentimenduen inguruan hitz egin beharko du. Hau landuko dugu:		20'

	<ul style="list-style-type: none"> - Dituzten ideiak eraldatu nahian, alde ona ikus dezaten, ideia desegokiak desikasiz. - Aurre egite egoki bat sortzeko, hauei aurre egiteko garaian antsietate eta estres mailak jaitsi nahian (ikus 16. eranskina). 	
11. 14.	<p><u>Ikerketa teknika: Philips 66</u> Ospitaleak sortzen dionaren inguruan hitz egingo dugu osasun agenteak rejilla bat erabiliz. Haurrek beraien esperientziak, beldurrak, ez-jakintasunak, bizitza aldaketak, familia egoera, heriotzaz hitz egiteko. Osasun agenteak rejillan jartzen duena altuan irakurriko du, gero papera entregatuko zaio haur bakoitzari eta esaldi bakoitzarekin lortzen duen hitz edo esaldi bat idatzi beharko du. Gerora, altuan eztabaidatuko dugularik idatzi dutena (17. eranskina)</p>	25'
22.	<p><u>Esposizio teknika:</u> Matematiketako problemak egingo ditugu. Gehiketak eta kenketak nola egin errepatatuko dugu eta pare bat buruketa egingo ditugu arbelean. Hau egin ostean matematiketako etxeko lanen txosten bat entregatuko zaie, hurrengo astean entregatu beharko dutena (ikus 18. eranskina).</p>	20'
Atsedena	<p><u>Jolasa:</u> Irudimeneko pilota pasatzera jolastuko dugu. Borobilean jarriko gara eta haurretako bat pilota pasaz hasiko da "Pim" esaterakoan noranzko berean jarraituko du pilotak, "Pam" esaterakoan noranzkoa aldatuko da eta "Pum" esatean hurrengo salto eginez pasako du, alboko bigarrenak jarraituko duelarik pilotaren jabetzarekin.</p>	20'
11. 14.	<p><u>Gaitasunak eta jarrerak garatzeko teknika: Simulazio operatiboa.</u> Beldurra ematen dieten egoeren aurrean, aurre egiteko estrategia eran, pertsonaia bat sortzea, imajinarioarekin indarra hartu eta aurrera egiten lagunduko diena. Gero, mozorrotu eta interpretazio azkar bat egin beharko dute, haiek osaturiko ideia nagusiak biltzen dituen gidoi txiki baten laguntzaz.</p>	25'
11. 14.	<p><u>Aurre egite puzzlea:</u> Egoera desberdinak planteatuko ditugu eta guztion artean puzzle bat osatuko dugu. Estres eta antsietatea sortzen duten egoera bakoitzeko aurre egite estrategia desberdinak idatziko dira puzzle pieza ezberdinetan. Hala puzzlea bat osatuko da; elkarren eta bakoitzaren indarra eta aurre egite gaitasuna adierazten duen mural bat sortuko duena (ikus 19. eranskina).</p>	30'
11. 23	<p>Erronka lortu ahal izateko umeeek atera dituzten ondorioak grabatuko dituzte banaka.</p>	10'
5. 6. 8. 11. 21. 22.	<p>Gogoraziko zaie:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Psikomotrizitate ariketak nola egin eta egin ditzatela astean bitan gutxienez ospitalean dauden bitartean. - Esnatzean eta ohera sartu baino lehen erlaxazio ariketak 10 minutuz egitea, nola egiten diren errepatatuko dugu. - 7. saiorako nahi duten liburua irakurri behar dutela. - Landarea zaindu eta astero haien gorputzean sentitu dutenaren esaldi bat gorde beharko dute landarearen azpian, gerora 8. saioan idatzi denaren inguruan hitz egingo dugularik. - Matematiketako etxeko lanen txosten bat entregatu beharko dute hurrengo astean (ikus 18.eranskina). 	10'
Ebaluaketa	<p>Saioan jorratutakoa ebaluatuko dugu: Umeei hiru aurpegidun kartulinar banatuko zaizkie:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Berdea, pozik - Horia, neutro - Gorria, triste <p>Osasun agenteek egindako ekintza bakoitzaren inguruan galdetuko diete; parte-hartu duten osasun agenteen inguruan eta erabilitako materialaren inguruan hauek iruditu zaienarekin bat datorrenaren aurpegia altxatuko dutelarik. Agenteak datu hauek balorazio orriko check-lista betez apuntatuko ditu (ikus 8.eranskina).</p>	10'

Iturria: Egileak egina

4.2.6 6. Saioa

Saio honetan umearen autokontzeptu eta autoestimua landu nahi dira. Izan ere, ospitalean ingresatuak egotera pasatzen diren momentuan ziren guztia galdu eta ni berri bat sortzen da. Umeek adin honetan ez dute oraindik haien izaeraren sorkuntza garbi bat, orduan hasten baitira garatzen. Ume hauek aldaketa sakonak pairatzen dituzte eta besteengandik oso desberdin sentitzera irits daitezke, haien buruaren ideia negatiboak sortzeraino. Hau ekidin nahian, saio hau sortuko da, haien lehengo nia, oraingo nia eta etorkizuneko nia lantzen joateari garrantzia emanez.

Hau ondo jorratu ahal izateko psikologoak lagunduko gaitu.

Rolak ere landuko ditugu. Egoera bakoitzean pertsonak har ditzakeen jarrerak rol desberdinekin lotu daitezkeela azalduko dugu. Bakoitzak nola jokatzeko duen aztertuko dugu, jorratzen duen rola identifikatuz.

OSI Donostialdean LMAgatik ingresatuak duden 6-8 urte bitarteko haurrek ondorengo helburuak landuko dituzte:

- 5. Gorputzaren kontzientzia sortzea eta gorputzeko atal desberdinak identifikatzea hirugarren saioaren amaieran (GAITASUNEZKOA).
- 6. Psikomotrizitate ariketak egitea astean bitan gutxienez ospitalean dauden bitartean (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).
- 8. Erlaxazio ariketak egiteko gaitasuna erakustea OHePren amaierarako eta egunean bitan gauzatzea (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).
- 15. Haien izaera eta nortasuna deskribatzea seigarren saioan zehar (GAITASUNEZKOA).
- 16. Haiek zein diren eta jasan dituzten aldaketak adieraztea, haien indargune eta ahuldadeekin, seigarren saioan zehar (GAITASUNEZKOA).
- 17. Egoera bakoitzaren aurrean dituzten rol desberdinak identifikatzea seigarren saioan zehar (GAITASUNEZKOA).
- 18. Pertsona batek izan ditzakeen rolak desberdintzea seigarren saioan zehar (GAITASUNEZKOA).
- 21. Adierazitako liburua irakurtzea eta esaldi laburrak idazteko gaitasuna adieraztea ikastaroaren amaierarako (EZAGUTZAZKOA ETA GAITASUNEZKOA).
- 22. Kenketa eta gehiketa sinpleak egiteko gaitasuna erakustea ikastaroaren amaierarako (EZAGUTZAZKOA).
- 23. Amaierako proiektua gauzatzeko gaitasuna adieraztea (EZAGUTZAZKOA ETA JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).

8. Taula: Seigarren saioaren antolaketa.

Lekua	Osasun-agentek	Gaiak	Baliabideak
OSI bakoitzeko 3. urdineko jolas-gela	<ul style="list-style-type: none"> - Erizaina. - Pedagogoak. - Psikologoak. 	<p>Garapen fasea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 8. gaia : Autokontzientzia eta autoestimua. 	<ul style="list-style-type: none"> - Orri zuria handiak, margoak eta errotulagailuak. - Boligrafoak. - Bingoko txostenak, plantilla, bozgorailuak, musika ekipoa. - Hari bola. - Grabaketa makina.
HELBURUAK	TEKNIKA ETA GARAPENA		IRAUPENA
Aurkezpena	<p>Elkartze teknikak: Elkarren artean agurtuko gara, astearen laburpentxo bat egin, etxeko lanak entregatu eta zuzenduko ditugu, dauden zalantzak argituz eta parte hartuko duten osasun agenteak aurkeztuko ditugu. Honekin batera egingo ditugun ekintzak aurkeztuko ditugu eta haurrek haien nahiak adieraziko dituzte.</p>		15'
15. 16.	<p>Hausnarketa teknika: ariketa bidez: Hasteko haien oraingo nia deskribatzeko eskatuko zaie:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nolakoak diren gurasoekin, ospitalean, lagunekin, ... - Haien izaera deskribatzea. - Gustatzen zaizkien gauzak azaltzea. - Haien indarrak eta ahuldadeak azpimarratzea. - Haien buruaren marrazki bat egitea kartulina handi batean. 		30'
15. 16.	<p>Hausnarketarako teknika: eztabaida bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Haien lehengo nia eta oraingo niaren arteko konparaketan pentsatzeko eskatuko zaie. Marrazkia begiratu eta zer ikusten duten oraingo niak duela eta zer den atzera begira galdu duena. Ondoren taldearekin konpartituko da. Ondorioa marrazkiaren alde batean idatziko da, posible bada, oraingo niaren ezaugarri berriak marraztuko dizkiogu beste kolore batekin. - Azkenik, etorkizunean nolakoak izan nahi duten eta zer egin nahi duten idazteko eskatuko zaie. - Kideei haien marrazkietan haien ezaugarriak idazteko eskatuko zaie. Kolore desberdinetan. Marrazki guztien irakurketa bat egingo dugu. Ondorioak ateraz. Haurrek haien ezaugarriak azpimarratzeko aukera izan eta autoestimua indartu dezaten. 		35'
22. Atsedena	<p>Esposizio teknika: Zenbaketa masiboa: Bingo musikatura jolastuko dugu. Hemen matematikak, abestiak eta ulermena nahastuko dira. Hasteko, gehiketa eta kenketadun plantilla bat emango zaie, hauen bingoko plantilla izango dena. Ondoren, txosten bat emango zaie, abestiak zerrendatuak daudelarik. Abestien zenbakia bingoari dagokiona izango da. Zozketa bidez, zenbakiak aterako dira eta play-list batean dagokion zenbakiak joko du. Umeek abestia identifikatu eta txostenean bilatu beharko dute dagokion zenbakia. Zenbaki hau beraien bingoko plantillan azaltzen bada zenbakia ezabatu beharko dute. Hala, zenbaki gabe lehen geratzen den haurra izango da irabazlea.</p>		35'
17. 18.	<p>Parte hartutako lezioa: Rolen inguruan hitz egingo dugu (bakoitzak egoera desberdinetan duen rolez, lagunek eta familiarrek duten rolez) rol desberdinen identifikazioa egin ahal izateko.</p>		15'
15. 16.	<p>Gaitasunak garatzeko teknika: Azkenik, harien jolasari ekingo diogu, elkar-irekitzeko eta bakoitzaren izaeraren ezaugarriak identifikatu eta definitzeko asmoarekin. Batek harien bola pasako dio beste bati haren inguruko galdera bat eginez, honek zintzoki erantzungo du eta galderaren inguruan eztabaidatuko da. Amaitzean, hari sare bat sortuko da elkarren arteko harremana adieraziko duena.</p>		20'
23	<p>Erronka lortu ahal izateko umeek atera dituzten ondorioak grabatuko dituzte banaka.</p>		10'
5.	<p>Gogoraziko zaie:</p>		10'

6. 8. 11. 21. 22.	<ul style="list-style-type: none"> - Psikomotrizitate ariketak nola egin eta egin ditzaten astean bitan gutxienez ospitalean dauden bitartean. - Esnatzean eta ohera sartu baino lehen erlaxazio ariketak 10 minutuz egitea, nola egin ere errepatatuko dugu - 7. saiorako nahi duten liburua irakurri behar dutela. - Landarea zaindu eta astero haien gorputzean sentitu dutenaren esaldi bat gorde beharko dute landarearen azpian, gerora 8. saioan idatzi denaren inguruan hitz egingo dugularik. 	
Ebaluaketa	<p>Saioan jorratutakoa ebaluatuko dugu: Umeei hiru aurpegidun kartulak banatuko zaizkie:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Berdea, pozik - Horia, neutro - Gorria, triste <p>Osasun agenteek egindako ekintza bakoitzaren inguruan galdetuko diete, parte-hartu duten osasun agenteen inguruan eta erabilitako materialaren inguruan hauek iruditu zaienarekin bat datorrenaren aurpegia altxatuko dutelarik. Agenteak datu hauek balorazio orrian apuntatuko ditu.</p>	10'

Iturria: Egileak egina

4.2.7 7.Saioa

Saio honetan sozializazioa, harremanak eta komunikazioa landu nahi dira. Honetarako, osasun agente bezala, gizarte hezitzaile bat etorriko da gurekin lan egitera. Aurrekoan aipatu bezala, 6-8 adin tartean umeek haien sozializatzeko era aldatzen dute, eta eredutzat haien berdinak hartzen hasten dira. Egoera hauetan, ospitalean ingresaturik denboraldi luzeak igaro behar dituztela, umeak haien berdinekin harremana galdu egiten dute.

OSI Donostialdean LMAgatik ingresatuak dauden 6-8 urte bitarteko haurrek ondorengo helburuak landuko dituzte:

- 5. Gorputzaren kontzientzia sortzea eta gorputzeko atal desberdinak identifikatzea hirugarren saioaren amaieran (GAITASUNEZKOA).
- 6. Psikomotrizitate ariketak egitea astean bitan gutxienez ospitalean dauden bitartean (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).
- 8. Erlaxazio ariketak egiteko gaitasuna erakustea OHePren amaierarako eta egunean bitan gauzatzea (JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).
- 11. Bakoitzak bere sentimenduak adieraziko ditu OHeP guztian zehar (GAITASUNEZKOA).
- 19. Lagunak zer diren eta haiekin duten harremana azaltzea zazpigarren saioan zehar (GAITASUNEZKOA).
- 20. Komunikazio onaren garrantzia adierazten dituzten ariketak gauzatzea zazpigarren saioaren amaierarako (GAITASUNEZKOA).
- 21. Adierazitako liburua irakurtzea eta esaldi laburrak idazteko gaitasuna adieraztea

ikastaroaren amaierarako (EZAGUTZAZKOA ETA GAITASUNEZKOA).

- 23. Amaierako proiektua gauzatzeko gaitasuna adieraztea (EZAGUTZAZKOA ETA JARRERA ETA GAITASUNEZKOA).

9. Taula: Zazpigarren saioaren antolaketa.

Lekua	Osasun-agenteak	Gaiak	Baliabideak
OSI bakoitzeko 3. urdineko jolas-gela	- Erizaina. - Pedagogoa. - Gizarte Hezitzailea. - Bere Irakaslea.	Garapen fasea: - 9. gaia: Gu soziala eta Sozializazioa.	- Orri zuriak. - Boligrafoak. - Ordenagailua eta proiektorea. - Grabaketa makina.
HELBURUAK	TEKNIKA ETA GARAPENA		IRAUPENA
Aurkezpena	Elkartze teknika: Elkarren artean agurtuko gara. Parte hartuko duten osasun agenteak aurkeztuko ditugu. Kasu honetan gizarte hezitzailea berria da eta, beraz, taldean integratuko dugu. Astea zer moduz joan zaien galdetuko dugu. Honekin batera egingo ditugun ekintzak aurkeztuko ditugu eta hurrek haien nahiak adieraziko dituzte, saioaren programaketa elkarrekin eraikitzeko.		10'
19.	Parte hartutako lezioa: Harremanen inguruan hitz egingo dugu, har-eman hitza xehatuz. Jarraian, harremanez hitz egingo dugu; gurasoekin, lagunekin, irakasleekin, erizainekin, ... duten harremanaren inguruan pentsatuz. Hemen, bakoitzak besteaz ikas dezakeena ere eztabaidatuko dugu. Zein harreman mota dituen, ea egokiak diren, bakoitzaren jarrera harreman horien barnean, ... Bukatzeko, lagunekin duten harreman motan zentratuko gara.		30'
20.	Hausnarketarako teknika ariketa bitartez: <ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioa landuko dugu eta harremanetan eta sozializazioan duen inpaktu eta garrantziaz arituko gara. Komunikazio berbala eta ez berbala ikasiko ditugu eta hauen erabileraren garrantzia azpimarratu (batez ere ez berbalaren inguruan). Honetarako bi ariketa egingo ditugu (ikus 20. eranskina): Komunikazioa hitzik egin gabe. • Komunikazioa bai eta ez-eko galderekin 		30'
Atsedena	Hausnarketa teknika: Ipuin kontalaria. Proiektu hasieran haiek hautaturiko liburu bat irakurtzeko eskatu zitzaizen. Saio honetan denon aurrean liburuaren laburpena eta balorazioa egin beharko digute. Ikasitakoa elkarri konpartituz eta liburua gomendagarria den edo ez hausnartuz.		0'
Gehigarri	Bideo dei bat egingo dugu ikaskideekin. Gurasoen, haurren, irakaslearen eta ikastolaren baimena jaso ostean elkarrizketa martxan jarriko dugu. Haurrak haren klase-kideei aurkezpen bat egin beharko die ospitalean bisitakoa azalduz. Hauek duten feedbacka jaso nahi da, haiekin duten jarrera eta harremana behatzeko.		40'
23.	Erronka lortu ahal izateko umeek atera dituzten ondorioak grabatuko dituzte banaka.		10'
5. 6. 8. 11. 21. 22.	Gogoraziko zaie: <ul style="list-style-type: none"> - Psikomotrizitate ariketak nola egin eta egin ditzaten astean bitan gutxienez ospitalean dauden bitartean. - Esmatzean eta ohera sartu baino lehen erlaxazio ariketak 10 minutuz egitea, nola egin ere erreparatuko dugu. - 7. saiorako nahi duten liburua irakurri behar dutela. - Landarea zaindu eta astero haien gorputzean sentitu dutenaren esaldi bat gorde beharko dute landarearen azpian, gerora 8. saioan idatzi denaren inguruan hitz egingo dugularik. Hurrengo saiora landarearen azpian 		10'

	<p>utzitako paper idatziak ekartzeko eskatuko zaie.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aspaldian hitz egin edo komunikazio ona izan ez duen eta maite duen pertsonari gutun bat bidali, ikasitakoa aplikatzeko. Gutunak nahi duten luzera izan dezake, hitz bat, bi esaldi edo gutun baten formatua. 	
Ebaluaketa	<p>Saioan jorratutakoa ebaluatuko dugu:</p> <p>Umeei hiru aurpegidun kartulinak banatuko zaizkie:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Berdea, pozik - Horia, neutro - Gorria, triste <p>Osasun agenteek egindako ekintza bakoitzaren inguruan galdetuko diete, parte-hartu duten osasun agenteen inguruan eta erabilitako materialaren inguruan hauek iruditu zaienarekin bat datorrenaren aurpegia altxatuko dutelarik. Agenteak datu hauek balorazio orrian apuntatuko ditu.</p>	10'

Iturria: Egileak egina

4.2.8 8. Saioa: Erronka burutzea

Saio honen bidez OHePari amaiera emango diogu.

10. Taula: Zortzigarren saioaren antolaketa

Lekua	Osasun-agenteak	Gaiak	Baliabideak
OSI bakoitzeko 3. urdineko jolas-gela	<ul style="list-style-type: none"> - Erizaina. - Pedagogoa. - Gizarte Hezitzailea. 	<p>Aplikazio eta komunikazio fasea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - ERRONKA → Podcast-a 	<ul style="list-style-type: none"> - Orri zuriak. - Boligrafoa. - Grabatutako materiala eta hau erreproduzitzeko makina. - Grabaketa makina
HELBURUAK	TEKNIKA ETA GARAPENA		IRAUPENA
Aurkezpena 21.	<p>Elkartze teknika:</p> <p>Aurkezpena egingo dugu, egin beharrekoak azaldu eta proiektuaren amaiera dela azalduko diegu.</p> <p>Idatziriko gutunaren inguruan hitz egingo dugu, etxeko lanak bete dituztela ziurtatzeko.</p>		15'
5. 11.	<p>Hausnarketa teknika:</p> <p>Landarearen azpian idatzirik utziriko paperak irakurriko ditugu. Haien gorputzean sentitu dutenaz hausnartuko dugularik, ea kontzienteago diren, nolakoak dira idatzitakoak, zer hobe genezakeen...</p> <p>Bestalde, landarearen egoeraren inguruan galdetuko zaie, ongi zaindu duten, aldaketarik nabari duten... Haien gorputzarekin konparaketa bat egin dezaten eskatuko zaizkizkien.</p>		20'
23.	<p>Podcast-a sortu:</p> <p>Hasteko, saio bakoitzean eginiko bere grabazioa entzungo du bakoitzak. Honekin ideia nagusi bat atera eta gidoi bat sortu beharko dute, podcast-ean hark nahi duena kontatu dezaten.</p> <p>Garrantzitsua da hemen azaltzea pertsonaia bat sor dezaketela edo haiek bezala azaldu, nahiago dutena.</p>		1ordu 30'
	<p>Ebaluazioa:</p> <p>Ebaluazio moduko bat egingo dugu biribilean, programaz (prozesuaz, egituraz eta baliabideez) hitz egingo dugu; gustatu zaien, nola sentitu diren, errepikatuko luketen, zer dagoen hobetzeko, adostutakoa bete den, ... Osasun agenteek haurrek esandakoa jasoko dute.</p>		15'

Agurra	Amaitzeko agurra egingo dugu, behar dutenerako gure disposizioa azalduz. Nahi izatekotan beste saio batean elkarrekin ikusi eta zer moduz dauden hitz egiteko aukera izan genezakeela proposatuko diegu..	5'
Agurra	Podcasta muntatua dagoenean etxera bidaliko zaiela esango zaie.	5'

Iturria: Egileak egina

4.3 Ebaluazioaren plangintza

Proiektua ebaluatzeko eta, horrela, berau hobetu ahal izateko beronen emaitzak, prozesua eta egitura eta baliabideak ebaluatu beharko ditugu, tresna desberdinak erabiliz.

4.3.1 Proiektuaren emaitzen ebaluazioa.

Xede-taldeak emaitzak lortu dituztela ebaluatzeko metodologia desberdinak erabiliko dira:

- Batetik, saio bakoitzean haur bakoitzaren behaketa sistematikoa egingo da errubrika baten bitartez (ikus 21. eranskina).
- Honekin batera, saio bakoitzaren amaieran ikasitakoaren laburpen baten grabaketa egingo dute. Grabaketa hauen bidez umek kontzeptuak barneratu dituzten ebaluatu ahal izango da (ikus 21. eranskina).
- Gainera, ospitalean dauden bitartean, psikomotrizitate ariketak (astean bitan gutxienez) eta erlaxazio ariketa (esnatzean eta ohera sartu baino lehen) egin dituzten ere ebaluatuko da.
- Honekin batera, erronka betetzerako garaian ematen duten informazioa hartuko da kontuan, programan zehar ikasitako gaiak eta barneraturiko ekintzak praktikan jartzen dituzten ikusi ahal izateko.

4.3.2 Proiektuaren prozeduraren ebaluazioa

OHeP-ren prozesua ebaluatzerako garaian, batetik, ekintzak egokiak izan diren (asistentzia, parte-hartzea, aurreikusiriko ekintzen gauzatze maila, helburuak eta edukiak diana taldera egokitzea, jarduerak...) eta, bestetik, ekintzen programazioa ere aproposa izan den aztertu behar da. Ebaluaketa hau osasun-agenteei behin programa amaitu denean burutuko dute (ikus 22. eranskina) eta xede-taldeak, berriz, saio bakoitzaren ostean osasun agenteek eginiko galderei erantzun diete aurpegi formako kartulinak altxatuz, informazio hau osasun agenteek jasoko dute, lehen aipaturiko check-listean (ikus 8. eranskina).

4.3.3 Proiektuaren egituraren eta baliabideen ebaluazioa

OHeP-ren egitura eta baliabideak ebaluatzeko garaian erabili den gela, saioen eta kurtsoaren iraupena, ordutegia, erabilitako baliabide didaktikoak eta pertsonalak (osasan-agentek)... egokiak izan diren aztertu behar da. Ebaluaketa hau osasan-agentek behin programa amaitu denean burutuko dute (ikus 21. eranskina) eta xede-taldeak, berriz, saio bakoitzaren ostean ebaluatuko ditu osasan agenteak check-listean jasoko dituelarik haien erantzunak (ikus 8. eranskina).

5 EKARPEN PERTSONALA

Gaur egun minbiziarekiko, eta ondorioz, LMArekiko, dagoen informazioa anitza da. Mota eta tratamendu ezberdin eta berri askoren informazio pila aurki dezakezu edonon, artikuluko zientifikoek gehienak arlo biologikoan izanik bere gai zentrala. Baina, datu eta arlo desberdinetan, informazio gehiago behar dena nabari da: intentsitatea adierazteko aurkitu diren datuak ez dira oso berriak, eta informazioa ez da ulerterraza. Bestalde, haur hauek ospitalean pasa behar duten denbora guztia, eta honek eragingo dizkien ondorioak, ez dira kontuan hartzen.

Erizaintzaz hitz egiten dugun uneoro zainketa holistikotzat, bio-psiko-sozialtzat, hartu behar dugula azpimarratzen zaigu, baina ez da egoera honetan dauden aurren garapena aurrera eramateko politika zehatzik aurkitu. Egindako bilaketa bibliografikoan ez da aurkitu honekin lotura duen gure osasan sistemak egindako osasan-hezkuntza programarik, eta beste sistemetan aurkitutakoak gai espezifiko batean zentratzen ziren, psikologikoa edota soziala, ez zen umearen garapen hausturan zentratzen eta asko gurasoei zuzenduak ziren. Egia da, minbizidun haurrak oso talde babestua direla eta bereziki ongi egiten direla haien zainketak, era oso eta goxo batean. Hauek eskura dituzten baliabideak ere anitzak dira, boluntario pila egoten dira haiekin lanean, eta talde sozialetarako eskuragarritasuna anitza da, baina kolektiboek bere kabuz egiten dute lana, nire ustetan zerbitzu publikoek haurrei berez eskaini beharreko arloak izanik. Ondorioz, OHeP honetan dena batera integratzeko nahia sortu da.

OHeP honen xedea, ospitale barnean ikastola moduko bat sortzea da, haurrak elkarrekin ikasteko

eta konpartitzeko gune eroso bat, haien gaixotasunaz eta egoeraz ikas dezaten. Garrantzitsua da haur hauek haien berdinekin zuzenduriko denbora pasatzea, sozializazio eta ikaste prozesuak aurrera egin dezan.

LMA bezalako gaitz bat pairatzeak, bizitzako arlo guztietan eragiten duela konturatzeko balio izan dit, nola haurraren eta haurra inguratzen duten pertsona guztien bizitzak, egun batetik bestera aldatzen diren segundo batetik bestera. Gainera, diagnostiko honek bizitza osorako ezizenarekin uzten zaitu, “minbiziari bizi iraun dion pertsona” bihurtzen zara, askorentzat kargadun motxila bat bihurtzen dena, bestelakoak bezalakoa izan eta hain desberdin egiten zaituena.

Sozialki askoz ere ikuspen handiagoa eman behar zaiona uste dut, estigmak hautsi eta ideia zuzenak eraikitzen hasi. Hala, gaitza pairatzen dutenak bai bere ingurukoak askoz ere babestuagoak sentituko direla eta naturaltasunez hitz egingo dute haien urduritasun, kezka eta ezinegonen inguruan. Gerora estresak eta antsietateak sor ditzaketen gaitzak garatzeko aukerak gutxituz. Beraz, sozialki ere lan handia dugu egiteko oraindik.

6 **BIBLIOGRAFIA**

- 1.- Cancer.org [Web orria]. America: American Cancer Society; 2012/07 [Azken aktualizazioa 2021/01/2021; sarbide data 2021/02/15]. “Acerca de la leucemia en niños” [13]. Eskuragarri: [¿Qué es la leucemia en niños? \(cancer.org\)](https://www.cancer.org/es/leucemia-en-ninos/)
- 2.- Asociacion Española de Afectados por Linfoma, Mieloma y Leucemia”. AEAL Explica: Leucemia Mieloide Aguda. Madrid: 1. edizioa. 2014/11.
- 3.- “Fundacion Josep Carreras” [Web orria]. Bartzelona: Fundación Internacional Josep Carreras (Dr. Albert Català); 2021/02/15 [azken aktualizazioa; sarbide data 2021/02/15]. Leucemia mieloide aguda infantil [9]. Eskuragarri: Leucemia mieloide aguda infantil | Fundación Josep Carreras contra la Leucemia (fcarreras.org)
- 4.- Cancer.net [Web orria]. Junta editorial de Cancer.Net; 2017/12 [sartze data: 2021/02/15]. Leucemia- mieloide aguda- AML- infantil. Eskuragarri: Leucemia - mieloide aguda - AML - infantil: Introducción | Cancer.Net
- 5.- Narayanan D., Weinberg O.K. “How I investigate acute myeloid leukemia”. International Journal of Laboratory Hematology [interneteko aldizkaria] 2019/11/13 [sarbide data 2021/02/15]; 42 (1): [p.3-15]. DOI: 10.1111/ijlh.13135. Eskuragarri: How I investigate acute myeloid leukemia - Narayanan - 2020 - International Journal of Laboratory Hematology - Wiley Online Library
- 6.- Instituto Nacional del Cáncer (NIH) [Web orria]. EEUU: Instituto nacional del cáncer; 2020/10 [sartze data 2021/02/15]. Tratamiento de la leucemia mieloide aguda y otras neoplasias mieloides malignas infantiles [26]. Eskuragarri: Tratamiento de la leucemia mieloide aguda y otras neoplasias mieloides malignas infantiles (PDQ®)–Versión para profesionales de salud - Instituto Nacional del Cáncer (cancer.gov)
- 7.- Madhusoodhan PP, Carroll WL, Bhatla T. Progress and Prospects in Pediatric Leukemia. Current Problems in Pediatric and Adolescent Health Care [interneteko aldizkaria] 2016 [sartze data 2021/02/15], 46(7): [229-24]. <https://doi.org/10.1016/j.cppeds.2016.04.003>. Eskuragarri: Progress and Prospects in Pediatric Leukemia - ScienceDirect
- 8.- Marcos-Gragera, R., Galceran, J., Martos, C. et al. Incidence and survival time trends for Spanish children and adolescents with leukaemia from 1983 to 2007. Clin Transl Oncol [interneteko aldizkaria]; 2017 [sartze data 2021/02/15]; 19(3) [301–316]. <https://doi.org/10.1007/s12094-016-1531-z>. Eskuragarri: Incidence and survival time trends for

9.- De Castro, V., Tobalina, M.C., Larrañaga, N. et al. Cáncer infantil en la comunidad autónoma vasca. 1990-2012. Euskal Autonomia Erkidegoa: Eusko Jaurlaritzak: 2016 [sartze data 2021/02/15]. Eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/registros_cancer/es_def/adjuntos/Cancer-infantil-CAV.pdf

10.- Hsiao, HJ., Chen, SH., Jaing, TH., et al. Psychosocial interventions for reduction of distress in children with leukemia during bone marrow aspiration and lumbar puncture. *ScienceDirect* [interneteko aldizkaria] 2019 [sartze data 2020/02/15]; 60: [278-284]. <https://doi.org/10.1016/j.pedneo.2018.07.004>. Eskuragarri: Psychosocial interventions for reduction of distress in children with leukemia during bone marrow aspiration and lumbar puncture - *Pediatrics & Neonatology* (pediatr-neonatology.com)

11.- Nagarajan, R., Gerbing, R., Alonzo, T., et al. Quality of life in pediatric acute myeloid leukemia: Report from the Children's Oncology Group. *Cancer Medicine* [interneteko aldizkaria] 2019 [sartze data 2021/02/15]; 8[4454-4464]. <https://doi.org/10.1002/cam4.2337>. Eskuragarri: Quality of life in pediatric acute myeloid leukemia: Report from the Children's Oncology Group - Nagarajan - 2019 - *Cancer Medicine* - Wiley Online Library

12.- Gil Moncayo FL, et al. Abordaje de la complejidad psicosocial en pacientes con cáncer. *Med Clin (Bartzelona)*[interneteko aldizkaria] 2019 [sartze data 2021/02/15]; 154 (3): [86-93]. <https://doi.org/10.1016/j.medcli.2019.03.022>. Eskuragarri: Abordaje de la complejidad psicosocial en pacientes con cáncer - *ScienceDirect*

13.- Saz Roy MA, Rigol Cuadra MA, Lluch Canut MT. Impacto de la enfermedad oncológica infantil. *[Rev ROL Enferm]* [interneteko aldizkaria] 2018 [sartze data 2021/02/15]; 41(3): [176-187]. Eskuragarri: [677347.pdf](https://www.ub.edu/677347.pdf) (ub.edu)

